



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko azaroaren 16a

126. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

A SAILA:

**Foru lege proiektuak:**

- Foru Lege proiektua, Toki Ogasunei buruzko Foru Legea aldatzen duena (2. or.).
- Foru Lege proiektua, ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituena. Aurkeztutako zuzenketak (19. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako Turismoari buruzko otsailaren 14ko 7/2003 Foru Legea aldatzekoa. Aurkeztutako zuzenketak (44. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Lege proiektua, Toki Ogasunei buruzko Foru Legea aldatzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 11n egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2020ko azaroaren 11n hartutako Erabakiaren bidez, Toki Ogasunei buruzko Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111., 127., 152.1 eta 153. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

**1.** Xedatzea Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua presako prozeduraz izapidetu dadin, Erregelamenduko 152 eta 153. artikuluetan ezarritako berezitasunekin (10-20/LEY-00019).

**2.** Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeari ematea proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **zortzi egun baliodueko epe bat** irekiko da, **2020ko azaroaren 27ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoarekin bat, talde parlamentarioek, foru parlamentarien elkarteak eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.

**4.** Foru lege proiektu honen tramitazioa 2021erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuaren tramitazioari egokituko zaio, eta zuzenketei eusteko epea 2020ko abenduaren 21eko 17:30ean bukatuko da.

Iruñean, 2020ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea aldatzen duena**

### **ZIOEN AZALPENA**

Nafarroako Foru Komunitateak, Konstituzioaren lehen xedapen gehigarrian xedatutakoaz baliatuz, aski eskumen-gaikuntza du bere toki ogasunei dagokiena arautzeko, eta arlo horretan araubide historikoa, bereki eta espezifikoa izan du.

Gaikuntza hori Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 46.1 artikuluan zehaztuta dago, Nafarroari esleitzen baitzikio “gaur egun (lege organikoak indarra hartzean) dituen ahalmen eta eskumenak, 1841eko abuztuaren 16ko Lege Itunduan, 1925eko azaroaren 4ko Errege Lege-dekretu Itunduan eta beren xedapen osagarrietan erabakitakoaren babesean, bai eta aurrekoekin bateragarriak izan eta Estatuko oinarritzko legeriaren arabera autonomia erkidegoei edo probintziei dagozkiekeenak ere”.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen hirugarren xedapen gehigarriak berak ezartzen duenez, lege horrek aginduko du Nafarroan, arlo horretan Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 46. artikulua Nafarroako toki administrazioarako ezartzen duen araubidearen kontrakoak ez diren gaietan.

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Jasangarritasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren azken xedapenetako hirugarrenaren lehen apartatuak ezartzen duenez, Nafarroako Foru Komunitatean, bere foru araubidea dela-eta, lege horretan xedatutakoa aplikatuko da, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Legearen 64. artikuluan ezarritakolari jarraikiz, Estatuaren eta Nafarroako Foru

Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoan xedatutakoarekin bat.

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Jasangarritasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan aurreikusitako informazioa emateko betebeharrak garatzen dituen urriaren 1eko HAP/2105/2012 Aginduaren xedapen gehigarri bakarrean xedatzen da ezen hura Nafarroako Foru Komunitatean eta Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatuko dela, betiere apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren azken xedapenetako hirugarrenean xedatutakoarekin bat.

Era berean, Estatuaren eta Nafarroaren arteko Hitzarmen Ekonomikoak, 1990eko uztailaren 31n izenpetutakoak (abenduarien 26ko 28/1990 Legea), zazpigarren xedapen gehigarrian ezartzen du Foru Komunitateari dagozkiola Estatuak toki entitateetan betetzen dituen finantza arloko tutoretza ahalmenak, Aurrekontu Egonkortasunari buruz orduan indarra zuen abenduaren 12ko 18/2001 Lege Orokorraren aplikazioarekin lotuta; horrek ez du esan nahi inola ere Nafarroako toki entitateen autonomia maila araubide erkidekoek dutena baino apalago izatea.

Hitzarmen Ekonomikoaren 48. artikulua ezartzen du, halaber, printzipio orokor gisa, Foru Komunitateari dagozkiola toki ogasunen arloan dituen ahalmenak eta eskumenak, 1841eko abuztuaren 16ko Lege Itunduan, 1925eko azaroaren 4ko Errege Lege-dekretu Itunduan eta gainerako xedapen osagarrietan erabakitakoaren babesean.

Foru lege proiektu honek zenbait aldaketa egiten ditu Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean, hala toki entitateen aurrekontu eta barne kontrolaren esparruari nola toki tributuen esparruari dagokionez, toki ogasunen arloan Nafarroak duen eskumen historiakoaz baliatuz.

Horrela, 13. artikuluko 5. apartatua aldatzen da berariaz gehitzeko, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean aurreikusi bezala, ordenantza fiskalek indarra hartuko dutela onetsi eta hurrengo ekitaldian, salbu eta ordenantzetan bertan beste data bat adierazten bada, indarra har dezaten argitaratzearekin batera edo argitara eman ondoren.

Aurrekontuaren eta gastu publikoaren arloan, aurrekontuaren likidazioa egiteko aurreikusitako data aldatzen da, martxoaren 1etik 31ra, onesteko denbora emateko.

Horrenbestez, aurrerantzean toki entitateko buruak apirilaren 30ean aurkeztu beharko ditu toki

entitateko egoera-orriak eta kontuak, bi aurkezpenak egun berberetan ez egiteko.

Horrekin batera, desagertzen da ordainagiri bidez ordainarazitako tributu-zorrak edo ordezkoei atxikipenarengatik ordaindu behar dituztenak geroratzeko ezintasuna, horrela toki entitateek aukera izan dezaten zailtasun ekonomikoak dituzten subjektu pasiboetako tributu horiek ordaintzen laguntzeko eskaera gero eta ohikoagoari erantzuteko; behar hori oso agerian geratu da egun bizi dugun osasun eta ekonomia krisialdiaren hasieratik.

Orobat aurreikusten da kreditu transferentziak onartzeko xedearekin toki entitateek hartzen dituzten erabakiak, hondamendi publikoaren edo antzeko kasuetan, betearazleak izan direla berehala, ukatu gabe haien kontra erreklamazioak sustatzeko aukera, zeinak aurkeztu eta hurrengo zortzi eguneko epean bideratu beharko baitira, eta ezetsizat hartu erreklamazioaren egileari ebazpenik ez bazaio jakinarazten epe horretan.

Honekin aintzat hartzen da toki entitateek askok egindako eskaera bat, garrantzi berezia duena egungo egoeran, osasun eta ekonomia krisian, lehen aipatu bezala, bide hau araudian aurreikusirik baitzegoen soilik aparteko kredituak eta kreditu-gehigarriak emateko.

Toki entitateei aurrekontu eta ekonomia kudeaketaren arloko tresna malguak ematea ere beharrezkotzat jotzen da, horien bidez aurreratu ahal izan dezaten gastu espedienteen tramitazio administratiboa, aurrekontuan behar den kreditu erabilgarria egon dadin behar diren erabakiak hartzen diren bitartean, dela ekitaldi bererako dela aurrekontu-egozpena egiten den ekitaldi bererako dela aurreko ekitaldirako.

Aukera horretan mota guztietako gastuak sartzeko direnez, aurreikusten da kontratazioarako baldintza-agirietan, administrazio klausula partikularretako baldintzetan, dirulaguntzen deialdietan edo, gastuaren izaeraren arabera, beharrezkoak diren agirietan berariaz jasoko dela prebentzio hau: gastua, zeinaren tramitazioa aurreratzen ari baita, edo, kasua bada, baita adjudikazioa edo ebazpena ere, etenda egonen dela kasuan kasuko betebeharrak dagokion ekitaldian finantzatzeko kreditu egokia eta nahikoa izan arte.

Dagokion kreditua egoteko behar den finantzaketa honako hauei loturik egoten ahalko da, osorik edo zati batean: baliabide berekiak, mailegu bat, kreditu bat, transferentzia bat edo beste entitate publiko edo pribatu baten ekarpena edo dirulaguntza, adibide batzuk aipatzearen.

Horrela, toki entitateei ahalbidetzen zaie kreditua izan aurretik tramitatzea, besteak beste, kontratazio espedienteak, hurrengo ekitaldirako ez eze (Kontratu Publikoei buruzko egungo 2/2018 Foru Legean aurreikusi bezala), uneko ekitaldirako ere bai.

Bestalde, Nafarroako toki entitateen aurrekontu egitura onesten duen 234/2015 Foru Dekretuan jasotako terminologiara ekartzen da foru legekoa, terminoak eguneratu eta harmonizatu baitzituen, halako moduan non “aurrekontuko partida” kontzeptua “aurrekontu aplikazioa” izanen baita hemendik aurrera, eta programen eta haien banaketaren araberako sailkapen berriak lehengo sailkapen funtzionala ordeztuko baitu.

Orobat, zenbait aldaketa proposatzen dira aurrekontu aldaketei dagokienez, toki entitateen aurrekontu kudeaketa arinagoa izan dadin.

Izan ere, aurreikusten da osoko bilkurak onetsi ahal izanen dituela aparteko kredituak edo kreditu-gehigarriak, egiaz erabilgarriak diren baliabide atxikiak finantzatuak, aurrekontuaren likidazioaren onespeneraren zain egon gabe; gauza bera aurreikusten da aurreko ekitaldian gastatu gabeko kredituak sartzeko ere.

Bi kasuetan nahitaezkoa izanen da kontu-hartzaileak txostena egitea egiazko finantzaketa erabilgarriari buruz. Hartara, exekuzioaldian dauden espedienteen aurrekontu arloko kudeaketa arintzen da diru-sarrerara atxiki erabilgarriekin, aurrekontuaren likidazioa onetsi arte.

Era berean, aurreikusirik dago osoko bilkurak jasotzea exekuzio oinarrietan (toki entitatearen aurrekontuarekin batera onesten direnak) tresna bat, aurrekontuaren onespenerako erabiltzen denaren parekoa baino arinagoa, organo horren eskumenekoak diren aurrekontu aldaketak tramitatu eta indarrean jartzeko.

Aldaketa horien xede nagusia da lehenbailehen tramitatzea, hurrengo ekitaldira arte atzeratu ezin diren gastuak exekutatzeko, hala egin ezean hurrengo ekitaldian sartuko liratekeelako eta ez indarreko aurrekontu-ekitaldian.

Horrenbestez, aldaketaren beraren izaera eta justifikazioarekin bat, tramitazioak helburuetarako egokia izan behar du, hau da, gastua uneko ekitaldian exekutatzeko.

Hori dela eta, gerta daiteke, aurrekontu aldaketak egiteko eta aurrekontua bera onesteko tramite berdina eskatuz gero, ezinezkoa bihurtzea egin nahi den aldaketa uneko aurrekontu ekitaldian gauzatzea.

Horri gehitu beharra zaio, aldaketen eduki materialari dagokionez, ez dagoela alde nabarmenik beste batzuekin alderatuta, esate baterako diru-sarreraren bidezko kredituak sortzearekin, zeinaren tramitazioa exekuzio oinarrietan jaso bezala egiten baita, betiere baldintzak betez gero: egiaz lortu behar dira zergaz besteko diru-sarrera berriak, aparteko kredituetarako eta kreditu-gehigarrietarako aurreikusitako antzekoak, eta, uneko ekitaldian gastatzea lortu ezean, diruzaintzako gerakinean sartuko dira, aparteko kredituak edo kreditu-gehigarriak emateko espedienteak tramitatzea ahalbidetuz, bestelako tramitazioa baitute.

Horregatik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 1.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, beharrezkoa da 2/1995 Foru Legeak ahalbidetzea toki entitatearen aurrekontuaren exekuzio oinarrietan (aurrekontuarekin batera onesten direnak eta, hortaz, aurrekontuaren beraren tramite eta betebeharrak berdina dituztenak) aurreikusi ahal izatea aparteko kredituak, kreditu-gehigarriak eta antzekoak emateko espedienteak jendaurrean jartzea iragarki-taulan argitaratuz, osoko bilkurak hasiera batean onetsi ondoren; hala egitea eraginkorra, proportzionatua eta beharrezkoa da ares-tian aipatutako helburuak betetzeko.

Epe horretan erreklamazioak edo alegazioak aurkezten ahalko dira, eta erabakia behin betiko onetsirik dagoela ulertuko da jendaurrean egoteko epea halakorik egin gabe iragan ondoren. Erreklamazioak edo alegazioak aurkeztuz gero, osoko bilkurak berariaz erabaki beharko du horien ebazpenaz eta proposatutako aldaketaren behin betiko onespeneraz, zeinak indarra hartuko baitu behin betiko testua toki entitatearen iragarki-taulan argitaratu ondoren.

Kontuan hartu behar da komunikazioaren teknologia berrien garapenari eta administrazio publikoen eta administrazio elektronikoaren kudeaketan gardentasunari buruzko araudiaren aplikazioari esker, toki entitate guztiek, gehiago edo gutxiago, bitartekoak dituztela publizitatea eta informazioa bermatzeko, Toki Ogasunei buruzko Foru Legea onartu zen garaian (1995ean) zeudena baino arinagoak eta bestelakoak, web atariak eta egoitza elektronikoak, kasu.

Berme erantsi gisa aurreikusten da exekuzio oinarrietan halako aurreikuspenik ez dagoen kasurako, osoko bilkurak tramitatu eta onetsiko dituela espedienteak aurrekontuetarako bete behar diren tramite eta betebeharrak berdinekin (informazioa, erreklamazioa eta publizitatea).

Bestalde, aurrekontu egonkortasunaren eta finantza jasangarritasunaren helburuei dagokionez, horiek betetzeko beharrezkoak diren elementu eta bitarteko batzuk ezartzen dira.

Horretarako, Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako lurralde historikoetako toki entitateetarako foru arauen bidez arautu den bezala, kasu honetan ere, Nafarroako Foru Komunitateak toki ogasunen arloan duen eskumen historikoaz baliatuz, foru araudia egokitu beharra dago gure toki entitateei arau tresna batzuk emateko, batetik, aurrekontu egonkortasunaren eta finantza jasangarritasunaren helburuak betetzeko behar direnak, eta bestetik, horiek erabiliz, azkar eta eraginkortasunez erantzun diezaieten bizi dugun osasun eta ekonomia krisiak ekarri dituen beharrei, kontuan hartuta toki entitateak direla herritarrengandik gertuen dauden administrazio publikoak.

Horrela, gainera, Nafarroako Kontuen Ganberaren gomendioa betetzen da; izan ere, toki sektore publikoari buruz 2018an egindako urteko txostenean gomendio hau jasotzen du: "araudia eta prozedurak ezartzea Foru Administrazioak bete behar duen finantza tutoretzarako, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa Foru Komunitateko toki entitateei aplikatzeari dagokionez".

Nafarroako toki entitateek hitzartu ditzaketen kreditu eragiketen gaineko indarreko arautzeari dagokionez –Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 125. artikulutik 131. artikulura bitarte jasotakoa–, esan behar da zaharkitua gelditu dela indarra hartu zutenetik aipatutako legeak, hots, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa, eta toki mailako zorpetzearen eta haren baimen araubidearen arloan emandako arauak.

Horrenbestez, arlo honetako foru araudia eguneratu behar da, batetik, finantza zuhertasunaren printzipioa gehitzeko, eta, bestetik, epe luzeko kreditu eragiketak baimentzeko araubidea eguneratzeko, estatuko araudian indarra duen araubidea aplikatuz.

Epe luzeko kreditu eragiketak baimentzearen arloan, 2013rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 17/2012 Legearen azken xedapenetako hogeita hamaikagarrenak aldatu zuen Defizit publikoa zuzentzeko presako neurriak, aurrekontuen, tributuen eta finantzen arlokoak arautzen dituen abenduaren 30eko 20/2011 Errege Lege-dekretuaren hamalagarren

xedapen gehigarriaren testua, eta mugagabeko indarra eman zion.

Horren ondorioz, Toki Ogasunei buruzko Foru Legea egokitzen da araudi orokor aplikagarrian xedatutakora, Nafarroako toki entitateen onerako.

Azkenik, barne kontrolaren arloan, 248. artikulua 2. apartatua aldatu behar da, Nafarroako edozein toki entitatek, ez bakarrik Iruñeko Udalak, aukera izan dezan ezartzeko alde aurreko fiskalizazio eta kontu-hartze mugatuko araubidea, oinarritzko baldintza batzuk dituen, oro har eta udalerri guztientzat aurreikusita dagoena, zein den ere biztanle kopurua, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina onetsi zuen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 219.2 artikuluan.

Horretarako, ezabatu beharra dago 50.000 biztanletik gorako kopuruaren aipamena, hartara Nafarroako toki entitate guztiek erabaki ahal izan dezaten alde aurreko kontu-hartzea mugatzea agindu horren a), b) eta c) letretan aipatzen diren gaiak egiaztatzerako soilik, betiere toki entitateko buruak proposatuta eta kontu-hartzaitzako organoak txostena egin ondoren.

Estatuan bezala, Nafarroan ere ahalbidetu behar da toki entitate txikietan barne kontrol erraztuko araubide bat ezartzea, lege gaikuntza nahikoa emanez Nafarroako Gobernuak berak erregelamenduz ezar dezan zein kasutan erabil dezaketen toki entitateek araubide hori eta zein diren haren ezaugarriak.

Toki tributuen arautzeari dagokionez, toki jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik aurreikusirik dauden tasen zenbatekoari dagokion araudia egokitu behar da merkatuaren errealitate berrira, bai interes orokorreko hornigaien kasuan bai populazio osoari edo zati garrantzitsu bati eragiten dioten hornigaien kasuan, energia hornidurarenean, nagusiki.

Merkatuko errealitate berri horrek alde batera uzten du eremu geografiko bakoitzeko hornitzaile bakarraren sistema zaharra, eta bereizten ditu, alde batetik, hornikuntzarako beharrezkoak diren sareen titular diren enpresa banatzaileak eta, bestetik, hornigaiak merkatuko lehiaren araubidean merkaturatzen dituzten enpresak.

Bi enpresa mota horiek aurreikusten dute ordainketa sistema bat banaketa sareen erabilergatik, kasu eta tributazio zehatzekin, eta hori guztia jaso behar da araudi aplikagarrian.

Lurraren kontribuzioari dagokionez, gaikuntza ematen zaie udalei aukerako hobari batzuk ezar-



tzeko. Lehenengo eta behin, 100eko 90erainoko hobaria, familia ugarien eta guraso bakarrekoen edo gurasobakartasun egoeran daudenen etxebizitzan gainean. Aldaketa horrekin betetzen da Familia Ugariet buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legearen 12.3.a) artikuluan eta Nafarroako Foru Komunitatean familia guraso bakarrekoei egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legearen 12. artikuluan jasotzen diren aginduak. Horrez gain, ezartzen diren hobariak, ezartzen badira, etxebizitzan balio eguneratzen gainean aplikatu daitezkeen, hobariaren aplikazioarako nahitaezkoa izanen da balorazio txostena azken bost urteetan eguneratu izana.

Orobat, 100eko 50erainoko hobaria ezartzen ahalko da ondasun higiezinaren gainean, eguzki energia edo beste energia berriztagarri batzuen bidezko aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak ezarri badituzte.

Bereziki aipagarria da ekonomia-jardueren gaineko zergaren aldaketa, 1.000.000 eurotik beherako negozio- zifra duten subjektu pasiboak zergaren ordainketatik salbuesteko xedea duena. Neurri horrek 31.000 langile autonomori eta 7.000 enpresa txikiri eraginen die, gutxi gorabehera, eta haren xedea da ekintzailatza bultzatu eta sustatzea eta koronabirusak ekarri duen krisi ekonomikorekin ondorioak apaltzea. Era berean, toki entitateen finantza nahikotasunaren printzipioa babestearren, lehen xedapen gehigarrian aurreikusten da Nafarroako Gobernuak konpentsazio bat emanen diela toki ogasunek Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen funtsaren kargura. Beste alde batetik, azken xedapenetako lehenak aldatzen du Toki ogasunek transferentzia arruntan eta beste laguntza batzuen kontzeptuetan Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen funtsaren zenbatekoa eta banaketa 2020. urterako ezartzen dituen Foru Legea, konpentsazio hori nola egingen den ezartzeko.

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari dagokionez, Arartekoaren gomendioak aintzat hartuta, zabaltzen da egokitzapen bereziak dituzten ibilgailuen eta desgaitasuna duten pertsonen izenean matrikulaturik daudenen gaineko salbuespena, ez baita aurrerantzean loturik egonen ibilgailuaren potentzia fiskalarekin. Bestalde, zergaren tarifak eguneratzen dira, toki ogasunek Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen funtsarako, transferentzia arruntei dagokienez, finkatzen den igoeraren arabera.

Tarifen azken eguneraketara abenduaren 27ko 19/2017 Foru Legean egin zenez, 2018an eta 2019an aplikatzeko, oraingoan tarifak eguneratu

tzen dira, 2021ean aplikatu beharrekoak ezartzeko, 2020ko eta 2021eko igoerekin.

Ildo horretan, Toki ogasunek transferentzia arruntan bidez Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen funtsaren zenbatekoa eta banaketa 2020rako ezartzen dituen 3/2020 Foru Legean aurreikusten denez, igoera izanen da Nafarroako Foru Komunitatean KPIak duen igoera portzentuala, 2018ko ekainetik 2019ko ekainera hartuta, gehi ehuneko 2. 2018ko ekainetik 2019ko ekainera hartuta, KPIaren igoera %1,0koa izan zenez, 2020rako igoera orokorra %3an ezarri zen.

Horrekin batera, foru lege horren azken xedapenetako lehenak aurreikusten du hura 2021erako luzatzea, eta beraz, 2021erako funtsaren igoera izanen da Nafarroako Foru Komunitateko KPIaren igoera, 2019ko ekainetik 2020ko ekainera bitarte hartuta, gehi ehuneko bi. Aldi horretako KPIa negatiboa izan denez,  $-0,7\%$ koa, 2021erako aurreikusten den igoera %1,3koa da. Beraz, ehunekoak batuta, aplikatu beharreko igoera %4,3koa da.

Eraikin, instalazio eta obren gaineko zergan lege gaikuntza bat eranstean da, udalek ordenantza bidez arautu ahal izan dezaten hobari bat zergaren kuotarako, %95erainokoa eguzki energiaren edo beste energia berriztagarri batzuen aprobetxamendurako eraikuntza, instalazio edo obren kasurako. Horren helburua da Nafarroako udalen egoera ez izatea erkidego mugakideetako udalena baino okerragoa inbertsio mota hori erakartzeko.

Hiri-lurren balio-igoeraren gaineko zergan bi aldaketa egin dira. Lehenbizikoaren xedea da argitzea zein den kontuan hartu behar den eskurapen-balioa, zehaztu nahi denean balio-igoerarik dagoen ala ez eskualdaketa batean, 173.1 artikuluko a), b) eta c) letretan xedatutako aplikatuz salbuesirik egon den beste eskualdaketa baten ondotik egiten delarik. Abiapuntuko ideia da salbuespen horiek, duten konfigurazioaren ondorioz, zergaren ordainketaren atzerapena direla, salbuespena baino areago, legeak ezartzen baitu ezen, etorkizuneko eskualdaketa baten ondorioetarako, ulertuko dela lurren balio-igoera gertatu den urte kopurua ez dela eten letra horietan aurreikusitako negozio juridikoak direla-eta. Zergaren atzerapenak koherentea izaten jarraitzeko, eta sortutako zalantzak eta gatazkak kontuan harturik, berariaz ezartzen da ezen, balio-igoerarik izan den zehaztearren, eskurapen-balioa izanen dela higiezinaren aurreko eskualdaketa dagokion, aipatutako negozio juridikoen ondorioa ez denari.

Bigarren aldaketaren helburua da eguneratzea lurren balioari sortzapenaren unean aplikatu beharreko gehieneko koefizienteak, zeinak, Toki Ogasunei buruzko Foru Legean bertan ezarritakoaren arabera, urtero eguneratu behar baitira.

Azkenik, luxuzko gastuen gaineko zergari dagokionez, bingo jokoan lortutako sarien gaineko karga kentzen da.

Foru legearen egitura hauxe da: artikulua bakarra, bi xedapen gehigarri eta bi azken xedapen.

Proiektu hau egitean aintzat hartu dira arauketa onaren printzipioak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 129. artikuluan ezarriak.

Foru legea, hori prestatzeko prozedura eta gainerako arauetan dituen ondorioak Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta nafarroa.eus webgunean argitaratzeak zaintzen du gardentasun eta irisgarritasun printzipioak errespetatuak izatea.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 20.2 artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 152. eta 153. artikuluetan ezarritakoarekin bat, foru lege proiektu hau onesteko gehiengo osoa beharko da.

**Artikulu bakarra.** 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen manu hauek testu hau izanen dute:

Bat. 13.5 artikulua.

“5. Ordenantza fiskalen eta haien aldaketen onespina Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragarriko da eta haien edukia Ordenantza Fiskalen erregistroari jakinaraziko zaio, erregistro publikoa baita, Nafarroako Aldizkari Ofizialean osorik edo zati batean argitaratzea ukatu gabe.

Ordenantza fiskalek onetsi eta hurrengo ekitaldian hartuko dute indarra, salbu eta ordenantzetan bertan beste data bat ezartzen bada, argitaratzearekin batera edo argitaratu ondotik”.

Bj. 91. artikulua indargabetzea.

Hiru. 105.1 artikulua.

“1. Toki jabari publikoaren erabilera pribatibogatik edo aprobetxamendu bereziagatik aurreikusirik dauden tasen zenbatekoa honako arau hauen arabera ezarriko da:

a) Oro har, erabileratik edo aprobetxamendutik eratorritako onurak merkatuan izanen lukeen balioa hartuko da oinarri, ukitutako ondasunak jabari publikokoak ez badira. Hartarako, ordenantza fiskalek zilegi izanen dute onura horren merkatu balioa definitzeko irizpide eta parametroak adieraztea, kasuan kasuko erabilera pribatiboaren edo aprobetxamendu bereziaren izaera espezifikoak kontuan hartuta.

b) Lizitazio publikoko prozedurak erabiltzen direnean, emakida, baimena edo adjudikazioa zein proposamenentzat egiten den, haren balio ekonomikoaren arabera finkatuko da tasaren zenbatekoa.

c) Hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek udalerrietako eremu publikoko lurzoru, lurgain eta lurpean egiten dituzten aprobetxamendu berezien edo erabilera pribatiboaren kasuan, zerbitzu horiek interes orokorreko hornidurak edo herritar guztiei edo zati handi bati eragiten dieten hornidurak emateko direnean, tasa horien zenbatekoa izanen da enpresa horiek udal-mugarte bakoitzean urtero eskuratzen duten fakturaziotik heldu diren diru-sarreraren gordinen %1,5, kasu guztietan eta batere salbuespenik egin gabe.

Horri dagokionez, zerbitzu horiek ustiatzen dituzten enpresen artean sartzen dira banaketarako eta merkaturatzeko enpresak.

Sakelako telefoniako zerbitzuak ez dira sartuko tasaren zenbatekoa zehazteko araubide berezi honetan.

Zenbatekoa zehazteko araubide berezi hau aplikatuko zaie c) letra honek aipatzen dituen enpresei, bai kasuan kasuko sareen titularrak izanik haien bidez hornidurak egiten dituztenean, bai sare horien titularrak izan gabe, horiek erabiltzeko, eskuratzeko edo horiekin lotzeko eskubidearen titularrak direnean.

Letra honetan xedatzen denari dagokionez, fakturaziotik heldu diren diru-sarreraren gordintzat hartuko dira entitate bakoitzari egozten ahal zaizkion diru-sarreraren gordinak, udal-mugartean emandako hornidura zerbitzuen ordainetan jaso dituenak.

Ondorio horietarako, diru-sarreraren gordinen artean ez dira sartuko egindako zerbitzuak kargatzen dituzten zeharkako zergak, ezta hirugarrenen kontura kobratutako partida edo zenbatekoak ere, baldin ez badira entitatearen diru-sarreraren berekiak, alegia, tasaren zenbatekoa zehazteko araubide berezi hau aplikatzen zaion entitatearen diru-sarreraren berekiak. Orobat, Ekonomia Ministerioaren energia elektrikoa sortzeko instalazioen adminis-

trazio erregistroaren 1. edo 2. ataletan inskribatutako instalazioetan erabili beharreko hornidura zerbitzuen ordainetan jasotako zenbatekoak ez dira sartuko fakturazioaren diru-sarrerara gordinetan, araubide berezi horretan tributatu dezakeen energia sortzeko beharrezkoa den lehengai gisa.

Hornidurak egiteko kanpoko sareak erabiltzen dituzten enpresek beren fakturazioko diru-sarrerara gordinetatik kenduko dituzte beste enpresa batzuei ordaindu dizkieten zenbatekoak, haien sareak eskuratzegatik edo haiei lotzegatik. Sare horien titulartasuna duten enpresek kontzeptu horregatik eskuraten dituzten zenbatekoak sartu beharko dituzte beren fakturazioko diru-sarrerara gordinetan.

Araubide berezi hau aplikatu ondoriozko zenbatekoa ez zaio jasanaraziko c) letra honek aipatzen dituen hornidura zerbitzuen erabiltzaileei.

c) letra honetan arautzen diren tasak bateragarriak dira toki erakundearen eskumeneko jarduerak edo zerbitzuak egiteagatik ezar daitezkeen beste tasa batzuekin. Halakoetan, c) letra honek aipatzen dituen enpresek subjektu pasibo izan beharko dute, 104.1.b) artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Udalerrietako eremu publikoko lurzoru, lurgain eta lurpean egiten dituzten erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezien ondoriozko beste tasa batzuk ez dira ordaindu beharko, tasa hau ordaintzen bada”.

Lau. 125 artikulua.

“125. artikulua.

1. Foru lege honetan aurreikusitako moduan, toki entitateek eta haien menpeko entitateek kreditu eragiketak hitzartzen ahalko dituzte, modalitate guztietakoak, epe luzeko nahiz laburrekoak, bai eta interes tasaren eta truke tasaren arriskua estali eta kudeatzeko finantza eragiketak ere.

2. Toki entitateek izenpetzen dituzten kreditu eragiketa guztiak, bai eta abalak edo bestelako berme publikoak ematea ere, finantza zuhurtasunaren printzipioari loturik egonen dira. Finantza zuhurtasuna baldintza multzo bat da, finantza eragiketek bete behar dutena beren arriskua eta kostua ahalik eta txikienak izan daitezen.

3. Eragiketek bete behar dituzten baldintzak finantza tutoretzaren arloan eskumena duen organoak emandako ebazpen bidez ezarriko dira”.

Bost. 126. artikulua.

“126. artikulua.

1. Aurreko artikuluan aipatzen diren entitateek epe luzeko kreditu publiko edo pribatura jotzen

ahalko dute, edozein motatakoa dela, beren inbertsioak finantzatzeko, bai eta lehendik dituzten eragiketa guztiak nahiz batzuk ordeztzeko ere.

2. Kreditua modu hauen arabera gauzatuko da:

a) Zor publikoaren jaulkipena.

b) Mota guztietako finantza-entitateekin mailegu edo kredituen kontratazioa.

c) Kreditu publiko edo pribatuaren beste edozein erabilera.

d) Lehendik dauden eragiketak eraldatu edo ordezteak, guztiak edo batzuk.

3. Kreditu eragiketek eragindako betebeharren ordainketa bermatzen ahalko da diru-sarrerara espezifikoko atxikiz, ondare ondasun zehatzen gaineko bermea eratuz, edo abalak emanaz.

4. Toki entitateen zor publikoak eta haiek jaulkitako balio bereko titulu-baloreek Nafarroako Gobernuak jaulkitako zor publikoaren onura eta baldintza berdinak izanen dituzte.

5. Foru lege honetan aurreikusitako epe luzeko kreditu mota guztiak hitzartzeko, beharrezkoa izanen da indarra duen behin betiko aurrekontuan sartzea edo, kasua bada, aurrekontuaren luzapenean”.

Sei. 127. artikulua.

“127. artikulua.

1. Toki entitateek, beren interesetarako komeni zaienean eta beren eskumeneko lanak egin eta zerbitzuak ematea errazteko, abala ematen ahaliko diote beraiekin lanak edo zerbitzuak kontratatzen dituzten edo toki entitatera itzuliko diren emakidak ustiatzen dituzten pertsona edo entitateek hitzartutako kreditu eragiketei, nolana hikoak direlarik eragiketa horiek; abalak banaka emanen dira eragiketa bakoitzerako.

2. Toki entitateek abala ematen ahaliko diote beren menpeko entitateek hitzartzen duten edozein mailegu eragiketari. Abalak, hala ere, ezin izanen du bermatu menpeko entitatean duen partaidetza baino handiagoa den kreditu-portzentajerik.

3. Aurreko bi apartatuetan aipatutako eragiketak aurreiazko fiskalizazioaren menpe egonen dira eta bermatutako maileguaren zenbatekoa ez da izanen entitateak berak obra edo zerbitzua zuzenean finantzatu balu baino handiagoa”.

Zazpi. 128. artikulua.

“128. artikulua.

Toki entitateek diruzaintzako eragiketak hitzartzen ahalko dituzte, urtebeteko eperako gehienez,



edozein finantza entitaterekin, diruzaintzan dituzten aldi baterako beharrei erantzuteko, baldin eta ez badira, osotara hartuta, aurreko ekitaldian eragiketa arruntengatik onartutako diru-sarreraren ehuneko 35 baino handiagoak, non eta eragiketa ez den egin behar ekitaldi horretako aurrekontuaren likidazioa egin aurretik, kasu horretan kontuan hartuko baita azken ekitaldiaren aurrekoan egindako likidazioa”.

Zortzi. 129. artikulua.

“129. artikulua.

1. Kreditu eragiketak hitzartu edo aldatzea kontu-hartzailtzak txostena egin ondotik erabaki beharko dira. Txostenean, bereziki, aztertuko da toki entitateak gaitasuna duen eragiketetatik heldu diren betebeharrak denboran betetzeko, eta bete-behar horiek aurrekontu egonkortasunean eta finantza jasagarritasunean izanen duten eragina.

2. Toki entitateetako buruek aurrekontuan aurreikusitako epe luzeko kreditu eragiketak hitzartzen ahalko dituzte, baldin eta haien zenbateko metatua ez bada, ekitaldi ekonomiko bakoitzean, aurreko ekitaldian eragiketa arruntengatik onartutako diru-sarreraren ehuneko 10 baino handiagoa, non eta eragiketa ez den egin behar ekitaldi horretako aurrekontuaren likidazioa egin aurretik, kasu horretan kontuan hartuko baita azken ekitaldiaren aurrekoan egindako likidazioa.

Epe laburreko kreditu eragiketak hitzartzen ahalko ditu izaera horretako eragiketa biziaren zenbateko metatua, eragiketa berria barne, ez denean aurreko ekitaldian eragiketa arruntengatik onartutako diru-sarreraren ehuneko 15 baino handiagoa, non eta eragiketa ez den egin behar ekitaldi horretako aurrekontuaren likidazioa egin aurretik, kasu horretan kontuan hartuko baita azken ekitaldiaren aurrekoan egindako likidazioa.

Toki entitateko buruak hitzartzen dituen eragiketen berri eman beharko dio toki entitatearen osoko bilkurari edo organo baliokideari, ondotik eginen den lehenbiziko bilkuran.

Muga horiek gainditu behar direnean, udalbatzaren osoko bilkurari edo organo baliokideari dagokio onestea”.

Bederatzi. 130. artikulua.

“130. artikulua.

1. Toki entitateek eta haien menpeko entitateek, Europako Kontuen Sistemaren araberrako definizio eta mugaketarekin bat Administrazio Publikoaren sektorean sailkatutakoek, aurre-aurreko ekitaldiko likidazioa aurrezki garbi positiboarekin ixten badute, epe luzeko kreditu eragiketa berriak

hitzartzen ahalko dituzte, baldin kapital biziaren bolumen osoa ez bada likidatutako edo sortutako diru-sarrera arruntaren ehuneko 75etik gorakoa, kontabilitateko egoera-orri bateratuetatik ateratzen diren zifretan oinarrituta.

Zorpetze bolumena aurreko paragrafoan aipatzen dena baino handiagoa eta likidatutako diru-sarrera arruntaren ehuneko 110 baino txikiagoa duten toki entitateek zorpetze eragiketak hitzartzen ahalko dituzte, finantza tutoretzako organoak horretarako baimena eman ondoren.

Aurrezki garbi negatiboa edo aurreko paragrafoan jasotzen dena baino zorpetze biziaren bolumen handiagoa duten entitateek ezin izanen dute epe luzeko kreditu eragiketarik hitzartu.

Ondorio horietarako, ulertuko da toki entitateen eta haien erakunde autonomoen aurrezki garbia dela diru-sarrera arruntengatik likidatutako eskubi-deen eta gastuen egoera-orrietako lehen, bigarren eta laugarren kapituluetan onartutako betebeharren arteko diferentzia, zenbateko hau kenduta: urteko amortizazio-kuota teoriko bat, proiektatutako eragiketarena eta ordaintzeko dauden mailegu eta jesapen bereki nahiz hirugarrenei abalaturako guztiena.

Urteko amortizazio-kuota teoriko horren zenbatekoa, biltzen dituen hitzartutako epe luzeko mailegu guztiena, korporazioak abalaturakoena, ordaintzeko dauden maileguena eta proiektatutako eragiketarena, termino konstantetan ezarriko da beti, interesak eta amortizaziorako urteko kuota barne hartuz, edozein direla ere eragiketa bakoitzaren modalitatea eta baldintzak.

Enpresa-erakunde publikoetan eta toki mailako fundazioetan eta merkataritza sozietateetan, aurrezki garbia da jarduera arruntaren emaitza, mailegu edo jesapenen interesak alde batera utzita, eta urteko amortizazio-kuota teoriko bat kenduta, aurreko paragrafoan zehazten den bezala.

Aurrezki garbian ez dira sartuko kreditu aldaketatik datozen betebeharrak onartuak, diruzaintzako gerakin likidoarekin finantzatu direnak.

Urteko kuota teoriko horien zenbatekoa kalkulatzeko ez dira kontuan hartuko ondasun higiezinaren gaineko hipoteken bidez bermatutako kreditu eragiketak, berme horrek hartzen duen mailegu-zatiari dagokion proportzioan.

Toki mailako erakunde autonomoaren, enpresa-erakunde publikoaren edo merkataritza sozietatearen jardueraren xedea etxebizitzak eraikitzea baldin bada, aurrezki garbiaren kalkulua eginen da azken bi ekitaldietako batezbestekoa hartuz.

Aurrezki garbia eta zorpetze maila kalkulazean kontuan hartu beharreko diru-sarrerak aruntak zehazteko, kenduko dira kapital eragiketei atxikitako diru-sarrerak eta 1. kapitulutik 5. kapitulura bitartekoei aplikatutako aparteko beste edozein diru-sarrera, legezko atxikipenagatik eta/edo errepikatuak ez izategatik diru-sarrera aruntak ez direnak.

Kapital biziaren kalkulurako, kontuan hartuko dira aurreko urteko abenduaren 31n indarra zuten eragiketa guztiak, abalen arriskua barne, horri gehituta, kasua bada, eragiketa formalizatuen saldo erabili gabeak eta proiektatutako eragiketaren zenbatekoa.

2. Edozein kasutan, finantza tutoretzako organoaren baimena beharko da epe laburreko eta luzeko kreditu eragiketarako, abalak emateko eta kontratuen baldintzak aldatzen edo berme gehigarriak eranstean dituzten gainerako eragiketarako, hirugarrenen bitartekaritzarekin nahiz gabe, kasu hauetan:

a) Atzerrian edo Espainiako egoiliarrek ez diren finantza entitateekin formalizatzen direnak, edozein dela ere proiektatutako eragiketaren kapitala ezartzeko dibisa; horren barnean daude finantza entitate ez-egoiliarrei egindako lagapenak, entitate egoiliarrek toki entitateei, haien erakunde autonomoei eta haien menpeko entitate, fundazio eta merkataritza-sozietateei emandako kredituetan dituzten partaidetzenak, horiek ematen dituzten zerbitzuak edo ekoizten dituzten produktuak nagusiki merkatuko diru-sarrerekin finantzatzen ez badira.

b) Zor jaulkipenen bidez edo kreditu publikoaren beste edozein erabilerekin bidez gauzatzen direnak.

a) Ietran aurreikusten denari dagokionez, ez dira atzerriko finantzaketatzat hartuko Europar Batasuneko herrialdeen lurraldearen barruan herrialde horietako bateko egoiliarrek diren finantza entitateekin eurotan egiten diren eragiketak. Kasu guztietan, eragiketa horiek finantza tutoretzako organoari komunikatu beharko zaizkio alde zurretik.

3. Aldi baterako inbertsioak finantzatzen dituzten eta foru lege honen 128. artikuluan araututako mugak gainditzen dituzten epe laburreko eragiketarako, baimena beharko da, zeina bakarrik emanen baita toki entitateak justifikatzen badu funtsak badituela dagokion muga-egunean kitatzeko.

4. Artikulu honetan ezarritako arauarekin bat, beharrezkoa bada finantza tutoretzako organoa-

ren baimena kreditu eragiketa hitzartzeko, eragiketa horrekin lotutako gastu konpromisoak ez dira irmo bihurtuko harik eta baimen hori eskuratu arte. Horretarako, finantza tutoretzako organoaren komunikazioa, baimenari buruzkoa, toki entitatara igorriko da kreditu eragiketa hitzartzeko eskaera egin eta bi hilabete iragan baino lehen.

5. Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru legeetan ezartzen ahalko dira, urtero, toki entitateek kreditua eskuratzeko bestelako baldintza batzuk, unean uneko egoera dela-eta neurri hori hartzea komeni denean, politika ekonomiko orokorraren arrazoiengatik. Aurrekontuak luzatzen direnean, mugak ezartzen ahalko dira horretarako onetsitako foru lege baten bidez.

6. Mailegu edo kreditu eragiketa bat edo zorjaulkipenak, bere modalitate guztietan, edozein motatako kredituan emandako abalak eta bermeak, finantza errentamenduko eragiketak eta etorkizuneko finantza egoerari eragiten dioten beste edozein, toki entitateek edo beren menpeko entitateek, Administrazio Publikoen sektorean sailkatutakoek, hitzartu dituztenak, izenpetu, kitatu edo aldatu eta hilabeteko epean, gehienez ere, jakinaraziko zaizkio finantza tutoretzako organoari eragiketaren baldintzak eta amortizazio taula”.

Hamar. 131. artikulua.

“131. artikulua.

Toki entitateen menpeko erakundeek kreditu eragiketak hitzartzen ahalko dituzte aurreko artikuluetan ezarritako baldintzetan, korporazioaren osoko bilkurak baimena eman eta kontu-hartzailetzak txostena egin ondotik”.

Hamaika. 140. artikulua, 4. eta 5. apartatuak gehitzea.

“4. Ordenantza fiskalek arautzen ahalko dute zergaren kuotaren 100eko 90erainoko hobari bat, kasuan kasuko etxebizitza familia ugariaren edo familia guraso bakarrekoaren edo gurasobakartasun egoeran dagoen familiaren titularrak diren subjektu pasiboan ohiko bizilekua denean.

Hobari hau aplikatzeko, beharrezkoa izanen da udalerriko balorazio txosten osoaren onespina edo azken berrikuspina aurreko bost urteko epean egina izatea, gehienez ere.

Hobariaren gainerako alderdi substantiboak eta formalak ordenantza fiskalaren bidez arautuko dira.

5. Orobat, ordenantza fiskalek arautzen ahalko dute ondasun higiezinaren gaineko zergaren kuota osoaren 100eko 50erainoko hobaria, higiezinaren eguzki energia edo beste energia berriztagarri ba-

tzuen bidezko aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak ezarri direnean. Hobari horren aplikaziorako, beharrezkoa izanen da beroa sortzeko instalazioetan administrazio eskudunaren homologazioa duten kolektoreak egotea.

Hobariaren gainerako alderdi substantiboak eta formalak ordenantza fiskalaren bidez arautuko dira”.

Hamabi. 150.1 artikulua, g) letra gehitzea.

“g) Negozio-zifraren zenbateko garbia 1.000.000 eurotik beherakoa duten subjektu pasiboak.

Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunei dagokienez, salbuespena aplikatuko zaie soilik Espainiako lurraldean establezimendu iraunkorraren bidez jarduten dutenei, baldin eta negozio-zifraren zenbateko garbia 1.000.000 eurotik beherakoa badute.

Edozein kasutan, salbuespena aplikatzeko beharrezkoa izanen da subjektu pasiboetan ez izatea letra honetan aurreikusitako negozio-zifraren zenbateko garbiaren betebeharra betetzen ez duten enpresen ehuneko 25eko edo gehiagoko partaidetza, zuzenekoak nahiz zeharkakoak, salbu eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 94. artikuluan aipatzen diren arrisku kapitaleko entitateak badira, partaidetza entitate horien xede soziala betetzearen ondorioa denean.

Letra honetan aurreikusitakoa aplikatzeko, arau hauek kontuan hartuko dira:

Lehen. Subjektu pasiboaren negozio-zifraren zenbateko garbian kontuan hartuko dira enpresaren ohiko jarduerari dagozkien zerbitzu-prestazioen, produktu-salmenten eta beste diru-sarrerak batzuen zenbatekoak, salmenten gaineko hobariak eta gainerako murriztapenak kenduta, bai eta balio erantsiaren gaineko zergaren eta aipatu negozio-zifrarekin zuzenean loturiko beste zerga batzuen zenbatekoak ere, jasanarazi beharrekoak.

Bigarrena. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, sozietateen gaineko zergaren, edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunen kasuan, negozio-zifraren zenbateko garbia izanen da tributu horien aitortzen aurkezteko epea zerga honen sortzapenaren aurreko urtean bukatu zen zergaldikoa.

Sozietateen gaineko zergaren zergadun ez diren sozietate zibilen kasuan, bai eta Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 25. artikuluan aipatzen diren entitate-

en kasuan ere, negozio-zifraren zenbateko garbia izanen da zerga honen sortzapeneko urtearen aurreko azken-aurreko urteari dagokiona.

Zergaldiaren iraupena urte naturala baino laburragoa izan bada, negozio-zifraren zenbateko garbia urte osoaren arabera izanen da.

Hirugarrena. Subjektu pasiboaren negozio-zifraren zenbateko garbia kalkulatzeko, kontuan hartuko dira hark betetako jarduera ekonomiko guztiak.

Delako entitatea sozietate talde bateko kidea bada (Merkataritza Kodearen 42. artikulua definitzen duen bezala), alde batera utzita egoitza eta urteko kontu bateratuak formulatzeko betebeharra, negozio-zifraren zenbateko garbia kalkulatu da talde horretako sozietate guztiak aintzat hartuta, kontuan harturik egoki diren eliminazioak eta gaineratutakoak, kontabilitateko araudia aplikatuta. Irizpide hori bera aplikatuko da pertsona fisiko bat, bera bakarrik edo ezkontidearekin edo ahaide dituen beste pertsona fisiko batzuekin elkar hartuta (ahaideak lerro zuzenekoak nahiz albokoak izan, odol bidezkoak nahiz ezkontza bidezkoak, bigarren graduraino, bigarrena barne), Merkataritza Kodearen 42. artikulua aipatzen dituen kasuetako batean badago, bazkide diren beste entitate batzuekiko, alde batera utzita entitateen egoitza eta urteko kontu kontsolidatuak egiteko betebeharra.

Laugarrena. Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunen kasuan, aintzat hartuko da Espainiako lurraldean dauden establezimendu iraunkor guztiei egotzi beharreko negozio-zifraren zenbateko garbia”.

Hamahiru. 160. artikulua.

“160. artikulua.

1. Honako hauek daude zerga honetatik salbuetsiak:

a) Nafarroako Foru Komunitatearen, Estatuen eta toki entitateen ibilgailu ofizialak.

b) Bulego kontsularren eta Espainian akreditazioa duten karrerako funtzionario kontsularren ibilgailuak, horiek beren herrialdeetako hiritarrak badira, kanpoan identifikatuak eta bai kopuruan bai graduan erreziprozitatearen baldintzarekin.

Era berean, Espainian egoitza edo bulegoa duten nazioarteko erakundeen ibilgailuak, bai eta haietako funtzionarioen edo estatutu diplomatikoa duten kideenak ere.

c) Anbulantziak eta osasun laguntza emateko zuzenean erabiltzen diren gainerako ibilgailuak,

Espainiako Gurutze Gorriarenak eta DYA Elkartearenak.

d) Desgaitasuna duten pertsonak eramateko ibilgailuak, irabazi-asmorik gabeko erakundeen izenean matrikulatutakoak.

e) Egokitzapen bereziak dituzten ibilgailuak. Salbuetsirik egonen dira, halaber, ehuneko 33ko desgaitasuna edo handiagoa dutenen izenean matrikulatutako ibilgailuak eta, desgaitasunaz gain, ezaugarri hauetakoren bat badute:

a') Mugikortasun murriztua izatea, Desgaitasun maila aitortu, onartu eta kalifikatzeko prozedurari buruzko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren II. eranskinean jasotakoaren arabera.

b') Defizit kognitiboa, intelektuala edo nahas-mendu mentala izatea.

c') Begirik hoberenean ikusmen-zolitasuna 0,1ekoa edo gutxiagokoa izatea leiar zuzentzaileekin, edo ikus-eremua 10 gradura edo gutxiagora murriztua.

d') Adingabea izatea.

Salbuespenak ibilgailu bat hartuko du pertsona bakoitzeko.

f) Garraio publikoari atxikitako hiri barneko autobusak, zerga ezartzen duen udalak edo udala, zerbitzu hori beste batzuekin elkartuta emateko, kide den toki entitateak emandako administrazio emakidaren araubidean.

g) Nekazaritzako Inskripzio Txartela duten traktore, atoi, erdi-atoi eta makinak.

2. 1. apartatuko e) eta g) letretan aipatzen diren salbuespenak baliatzeko, interesdunek eskatu beharko dute, ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onura izateko arrazoia adieraziz. Toki entitateak salbuespena deklaratu ondoren, hala dela frogatzen duen agiri bat eginen da".

Hamalau. 162.1 artikulua.

"1. Zerga honako kuota hauen arabera eskatuko da:

a) Turismo ibilgailuak:

- 8 zaldi fiskal baino gutxiago: 20,88
- 8 zaldi fiskaletik 12ra bitartean: 58,72
- 12 zaldi fiskal baino gehiago eta gehienez 16: 125,25
- 16 zaldi fiskal baino gehiago: 156,63

b) Autobusak:

- 21 leku baino gutxiago: 146,12

– 21 lekutik 50era bitarte: 208,79

– 50 leku baino gehiago: 260,99

c) Kamioiak:

- 1.000 kg-tik beherako karga erabilgarria: 73,15
- 1.000 kg-tik 2.999ra bitarteko karga erabilgarria: 146,12
- 2.999 kg-tik gora eta 9.999ra bitarteko karga erabilgarria: 208,79
- 9.999 kg-tik gorako karga erabilgarria: 260,99

d) Traktoreak:

- 16 zaldi fiskal baino gutxiago: 35,87
- 16 zaldi fiskaletik 25era bitarte: 71,72
- 25 zaldi fiskal baino gehiago: 143,27

e) Atoiak eta erdi atoiak:

- 1.000 kg-tik beherako karga erabilgarria: 36,61
- 1.000 kg-tik 2.999ra bitarteko karga erabilgarria: 73,15
- 2.999 kg-tik gorako karga erabilgarria: 146,12

f) Bestelako ibilgailuak:

- Ziklomotorrak: 5,22
- 125 cc-ra arteko motozikletak: 5,26
- 125 cc-tik gora eta 250 cc-ra bitarteko motozikletak: 7,90
- 250 cc-tik gora eta 500 cc-ra bitarteko motozikletak: 25,80
- 500 cc-tik gora eta 1.000 cc-ra bitarteko motozikletak: 51,64
- 1.000 cc-tik gorako motozikletak: 103,27"

Hamabost. 170. bis artikulua gehitzea.

"170. bis artikulua. Aukerako hobariak.

Ordenantza fiskalek arautzen ahalko dute zergaren kuotaren 100eko 95erainoko hobari bat, eguzki energiaren edo beste energia berriztagarri batzuen aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak ezartzen dituzten eraikuntza, instalazio edo obren alde. Hobari horren aplikaziorako, beharrezkoa izanen da beroa sortzeko instalazioetan administrazio eskudunaren homologazioa duten kolektoreak egotea.

Hobariaren gainerako alderdi substantiboak eta formalak ordenantza fiskalaren bidez arautuko dira".

Hamasei. 173.1 artikulua.

“1. Zerga honetatik salbuetsirik daude honako egintza hauen ondorioz gertatzen diren balio-igoerak:

a) Ezkontideek ezkontza-sozietateari egindako ondasun eta eskubide ekarpenak, haren alde eta haiek ordaintzeko egindako esleipenak, eta ezkontideei haien bien aktiboen ordainetan egiten zaizkienak.

b) Herentziaz, legatuz, ezkonsariz, dohaintzaz edo doako beste edozein titulu bidez aurrekoen, ondorengoen eta ezkontideen artean egiten diren eskualdaketak, mota guztietako ondasunenak.

c) Ezkontideen arteko edo seme-alaben aldeko ondasun eskualdaketak, deuseztasun, banaketa edo dibortzio kasuetan epaiak betetzearen ondoriozkoak, ezkontza araubide ekonomikoa edozein dela ere.

Nolanahi ere, aurreko a), b) eta c) letretan aipatzen diren negozio juridikoak gertatzen direnean, eta balio-igoera lotua baina salbuetsia dagolarik, ez dute etenik eraginen 175. artikuluan aurreikusitako hogeituro urteko epean. Higiezin horiek gero eskualdatzen direnean, ulertuko da lurren balio-igoera gertatu den urteen kopuruan ez dela etenik izan letra horietan aurreikusitako negozio juridikoen ondorioz. Era berean, 172.4 artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, ez da eskurapen-balioztat hartuko aipatutako negozio juridikoei dagokiena, beste egintza batzuegatik higiezinaren aurreko eskualdaketaari dagokiona baizik.

d) Zortasun eskubide ororen eraketa eta eskualdaketa.

e) Ondasun eskualdaketak edo jabaria mugatzen duten gozamen eskubide errealeen eraketa edo eskualdaketa kostu gabekoa, Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean aurreikusitako zerga araubidea aplikatzekoa zaien entitateen aldekoa, edo Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga-pizgarriak arautzen dituen maiatzaren 16ko 8/2014 Foru Legearen 4. artikuluan aipatzen den kultur mezenasgoaren onuradunak diren pertsonen eta entitateen aldekoa.

Letra honetan araututako salbuespenerako eskubidea izateko, beharrezkoa izanen da ondasun edo eskubide horiek 10/1996 Foru Legean jasotako entitateen berariazko xedea diren jardueri atxikitzea, edo 8/2014 Foru Legean jasotako pertsonen edo entitateek egindako proiektuei edo jardueri, baldin eta interes sozialaren deklarazioa

badute, Nafarroako Gobernuaren kulturaren esku-mena duen departamentuak emana”.

Hamazazpi. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, 175.2 artikuluan ezarritako gehieneko koefizienteak honako hauek izanen dira:

Koefizientea	Sortzealdia
0,50	20 urte edo hortik gora
0,52	19 urte
0,14	18 urte
0,13	17 urte
0,06	16 urte
0,06	15 urte
0,06	14 urte
0,06	13 urte
0,06	12 urte
0,06	11 urte
0,06	10 urte
0,06	9 urte
0,06	8 urte
0,13	7 urte
0,30	6 urte
0,36	5 urte
0,28	4 urte
0,20	3 urte
0,11	2 urte
0,06	1 urte
0,06	Urtebetetik behera”

Hemezortzi. 179.c) artikulua, indargabetzea.

Hemeretzi. 180.c) artikulua, indargabetzea.

Hogei. 181.1.c) artikulua, indargabetzea.

Hogeita bat. 182.c) artikulua, indargabetzea.

Hogeita bi. 183.c) artikulua, indargabetzea.

Hogeita hiru. 200.3 eta 4 artikulua.

“3. Gastu aurrekontuko egituraren programen araberrako sailkapenak eta sailkapen ekonomikoak irizpide hauek beteko dituzte:

a) Programen araberrako sailkapenak hiru maila izanen ditu. Lehenbizikoa gastuaren arlokoa, bigarrena gastu politikakoa eta hirugarrena programa taldekoa. Sailkapen honi maila bat edo bi gehitzen ahalko zaizkio, programarako eta azpi-programarako, hurrenez hurren.

b) Sailkapen ekonomikoak hiru maila izanen ditu, lehenbizikoa kapitulukoa, bigarrena artikulua



koa eta hirugarrena kontzeptukoa. Saillkapen honi maila bat edo bi gehitzen ahalko zaizkio.

4. Aurrekontu aplikazioan, zeinen adierazpen zenbakitua aurrekontuko kreditua baita, gutxienez programen araberako saillkapena eta saillkapen ekonomikoa sartuko dira.

Toki entitateak saillkapen organikoa erabiltzea erabakitzen badu, aurrekontu aplikazioan ere sartuko da.

Gastuen kontabilitate-kontrola aurrekontu aplikazioaren gainean eginen da eta kontrol fiskala, berriz, lotespen juridikoaren mailaren gainean, 208. artikulua ezarri moduan”.

Hogeita lau. 208.2. eta 3 artikulua.

“2. Aurrekontuaren exekuzio oinarrietan ezarzen ahalko da gastuetarako kredituen lotespena toki entitateak bere kudeaketa egokirako beharrezkotzat jotzen dituen garapen mailekin, garapena programen araberakoa, ekonomikoa edo organikoa dela.

3. Aurreko apartatuan jasotzen den ahalmena erabiltzen duten toki entitateek, betiere, errespetatu beharko dituzte muga hauek lotespen mailei dagokienez:

- a) Programen araberako saillkapenari dagokionez, gastu arloa.
- b) Saillkapen ekonomikoari dagokionez, kapitulu”.

Hogeita bost. 210 bis artikulua gehitzea.

“210. bis artikulua.

1. Nafarroako toki entitateek hasiera ematen ahalko diote gastu espedienteen tramitazioari dagokion aurrekontu kreditua izan aurretik ere, zein ekitalditako aurrekonturi egotziko zaizkion, ekitaldi horretan berean nahiz aurrekoan.

Espedientearen hasierari erantsi beharko zaio nahitaez kontu-hartzaitzaren txosten bat, zeinean berariaz jasoko baita gastua aurreratua dela eta kreditu egokia eta nahikoa izatearen baldintza etengarriaren menpe dagoela.

2. Edozein kasutan, administrazio klausula partikularren agiri edo baldintzetan, dirulaguntzen deialdietan edo, gastuaren izaeraren arabera, beharrezkoak diren agirietan berariaz jasoko da prebentzio hau: gastua, zeinaren tramitazioa aurreratzen ari den, edo, kasua bada, baita adjudikazioa edo ebazpena ere, etenda egonen dela kasuko betebeharrak dagokion ekitaldian finantzatzeko kreditu egokia eta nahikoa izan arte”.

Hogeita sei. 213.1 artikulua.

“1. Aparteko kredituak eta kreditu-gehigarriak baliabide hauetako batekin edo batzuekin finantzatzen ahalko dira:

a) Diruzaintzako gerakin likidoaren kargura.

b) Ekitaldian, aurreikuspenen arabera, jasoko diren diru-sarrera berriekin edo aurrekontu arruntean aurreikusitakotik gora guztira egiaz bildu diren diru-sarrerekin.

c) Indarreko aurrekontuko konprometitu gabeko beste aurrekontu aplikazio batzuetako kredituak baliogabetuz edo baja emanez, ulertzen denean horien zuzkidurak murriztu daitezkeela dagokion zerbitzuari nahasmendurik eragin gabe”.

Hogeita zazpi. 213. artikulua, 4. apartatua gehitzea.

“4. Salbuespen gisa, aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa onetsi arte, baliabide atxikiakin edo finantzaketa atxikiarekin finantzatzen ahalko dira gastu berriei edo handiagoei erantzuteko behar diren aldaketak. Nahitaezkoa izanen da kontu-hartzaitzaren txostena egiazko finantzaketa erabilgarriari buruz”.

Hogeita zortzi. 214.2. eta 3 artikulua.

“2. Aurrekontuaren exekuzio oinarrietan hala ezarrita dagoenean, kreditu horiek emateko osoko bilkurak hartutako hasierako erabakia jendaurrean jarriko da Korporazioko iragarki-taulan hamabost egun naturaleko epean, bizilagunek edo interesdunek egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak edo alegazioak aurkez ditzaten.

Epe hori iraganik, eta erreklamazio edo alegaziorik egin ez bada, hasierako onespene erabakia behin betikoa dela ulertuko da, eta jendaurrean egoteko epea iraganik hartuko du indarra.

Erreklamazioak edo alegazioak aurkezten badira, berriz, osoko bilkurak berariaz erabaki beharko du erreklamazio edo alegazio horien ebazpenaz eta proposatutako aldaketaren behin betiko onespenez, zeinak indarra hartuko baitu behin betiko testua toki entitatearen iragarki-taulan argitaratu ondoren.

Exekuzio oinarrietan halako aurreikuspenik ez dagoen kasurako, osoko bilkurak espedienteak tramitatu eta onetsiko ditu aurrekontuetarako bete behar diren tramite eta betebeharrak berdinekin (informazioa, erreklamazioa eta publizitatea).

3. Aparteko kredituak edo kreditu-gehigarriak emateko xedearekin toki entitateek hartzen dituzten erabakiak, hondamendi publikoaren edo antzeko kasuetan, betearazleak izanen dira bereha-

la, ukatu gabe haien kontra erreklamazioak sustatzeko aukera, zeinak aurkeztu eta hurrengo zortzi eguneko epean bideratu beharko baitira, eta ezetsizat hartu erreklamazioaren egileari ebazpenik ez bazaio jakinarazten epe horretan”.

Hogeita bederatzia. 216.2. eta 3 artikulua.

“2. Gastu arlo desberdinen arteko kreditu transferentziak onestea Korporazioaren osoko bilkuraren eskumena izanen da kasu guztietan, salbu eta bajek eta altek langileen arloko kredituei eragiten dietenean.

3. Artikulu honetan aipatzen diren aurrekontu aldaketak, osoko bilkuraren eskumenekoak direnean, foru lege honen 214.2 artikuluan aurrekusi-takoaren arabera tramitatuko dira”.

Hogeita hamar. 217. artikuluar 3. apartatua gehitzea.

“3. Gastu arlo desberdinen arteko kreditu transferentziak egiteko xedearekin, toki entitateek hartzen dituzten erabakiak, hondamendi publikoaren edo antzeko kasuetan, betearazleak izanen dira berehala, ukatu gabe haien kontra erreklamazioak sustatzeko aukera, zeinak aurkeztu eta hurrengo zortzi eguneko epean bideratu beharko baitira, eta ezetsizat hartu erreklamazioaren egileari ebazpenik ez bazaio jakinarazten epe horretan”.

Hogeita hamaika. 219.5 artikulua.

“5. Halere, diru-sarrera atxikiekin finantzatzutako proiektuak babesten dituzten kreditu gerakinak nahitaez sartu beharko dira, eta ez zaizkie aplikatuko ekitaldi kopuruari dagokion mugaren arauak, salbu eta uko egiten bazaio gastuaren exekuzioari hasiera edo jarraipena emateari, osorik nahiz zati batean, edo egitea ezinezkoa bada. Era berean, aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa onetsi arte iragaten den denbora epean sartzen ahalko dira”.

Hogeita hamabi. 227.2 artikulua.

“2. Kontu-hartzaitzak txostena egin ondoren, toki entitateko buruak onetsi beharko du, martxoaren 31 baino lehen, toki entitatearen eta haren menpeko erakunde autonomoen aurrekontuen likidazioa, bigarren kasu horretan organo eskudunak ere onetsi ondoren”.

Hogeita hamahiru. 227. artikuluar 3. apartatua gehitzea.

“3. Behar bezala onetsitako likidazio hori igorriko diote toki entitateek Foru Komunitateko Administrazioari, onetsi eta hamabost egun balioduneko epean”.

Hogeita hamalau. 242.1 artikulua.

“1. Toki entitateko buruak egoera-orriak eta kontuak osatu beharko ditu dagokien ekitaldiaren ondoko ekitaldiko apirilaren 30a baino lehen. Erakunde autonomoenak, merkataritza sozietateenak (horien kapitala toki entitatearen denean osorik edo zati handiengan), eta toki entitatearen menpeko beste entitate batzuenak, hasiera batean horietako organo eskudunek eman eta proposatuak, epe berean igorriko zaizkio toki entitateari”.

Hogeita hamabost. 242 bis artikulua gehitzea.

“242 bis artikulua.

1. Nafarroako toki entitateen eta haien menpeko erakunde aurrekontuen prestaketa, onespina eta exekuzioa, bai eta haien gastu eta diru-sarrerei eragiten dieten gainerako jarduketak ere, aurrekontu egonkortasuna eta finantza jasangarritasuna oinarri hartuta beteko dira, Foru Komunitateko Estatuko eta Europako araudiarekin bat.

2. Gastu araua aplikatzeko, Kontu Nazionalen eta Eskualdeetako Europako Sistemaren arabera definitutako gastu ez-finantzarioen urtetik urterako aldea ez da izanen Espainiako ekonomian epe ertainean barne produktu gordinak duen erreferentziako hazkunde-tasa baino handiagoa. Kalkulu horretatik kanpo utziko dira zorraren interesak eta Europar Batasunetik, beste administrazio publiko batzuetatik, hirigintza kudeaketatik edo bestelakoetatik datozen funts finalistek bidez finantzatzutako gastu-zatia”.

Hogeita hamasei. 242 ter artikulua gehitzea.

“242 ter artikulua.

1. Ekitaldia ixtean aurrekontu egonkortasunaren helburua, zor publikoarena edo gastu araua betetzen ez bada, ez-betetzearen erantzulea den Administrazioak ekonomia eta finantza plan (EFP) bat prestatuko du, urte horretan eta hurrengoan helburuak edo gastu araua betetzeko bide eman duena.

2. Aurrekontu egonkortasunaren helburuaren ez-betetzea gertatzen bada gastuak diruzaintzako gerakinarekin finantzatu direlako, ekonomia eta finantza planaren orde, kontu-hartzaitzako lanak betetzen dituen organoak komunikazio bat igorriko dio osoko bilkurari horren berri emanez, ez-betetzeari eta toki korporazioaren finantza jasangarritasunari buruzko analisi eta ebaluazioarekin batera. Gauza bera eginen da ez-betetzea gertatzen bada gastu proiektuak exekutatu direlako urteko finantzaketa desbideratze negatiboekin.

3. Gastu araua betetzen ez duten entitateen kasuan, plana egin orde, kontu-hartzaitza lanak

betetzen dituen organoak komunikazio bat igortzen ahalko dio osoko bilkurari, entitatearen finantza jasagarritasuna aztertu, ebaluatu eta egiaztatzen duena, baldin eta ez-betetzea gertatu den ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa egiten bada gastu orokorretarako diruzaintza gerakina eta aurrezki garbi positiboa izanda, eta betetzen badira hurrengo ekitaldirako defizitaren eta zor publikoaren helburuak.

4. Artikulu honen 2. eta 3. apartatuetan aurreikusitako kasuetan, osoko bilkuraren akta, kontuhartzaitzako organoaren txostena eta horien euskarri den gainerako dokumentazioa finantza tutoretzako organoari igorriko zaizkio; organo horrek, dokumentazioa jaso eta 30 eguneko epean, beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarria eskatzen ahalko du, bai eta neurri osagarriak har daitezela ere, horien artean, besteak beste, ekonomia eta finantza plan bat egitea, toki entitatearen finantza jasagarritasunaren berme gisa. Epe hori iragaten bada finantza tutoretzako organoak berriazko ebazpenik eman gabe, ulertuko da ez dela beharrezkoa neurri osagarriak hartzea”.

Hogeita hamazazpi. 248.2 artikulua.

“2. Osoko bilkurak, toki entitateko buruak proposatuta eta kontuhartzaitzako organoak txostena egin ondotik, erabaki dezake alde aurreko kontuhartzaitza alderdi hauek egiaztatzen mugatzea:

a) Aurrekontu kreditu aski baden, proposatzen den kreditua egin edo hartu nahi den gastu edo betebeharrerako egokia den, eta, urte anitzeko gastu konpromisoak hartuz gero, 224. artikuluan eta hurrengoetan agindutakoa betetzen den.

b) Betebeharrak edo gastuak organo eskudun batek proposatzen dituen.

c) Kudeaketa prozesuan duten eragina dela-eta, osoko bilkurak zehazten dituen beste alderdi batzuk.

Kontuhartzaitzako organoak egoki iruditzen zaizkion ohar osagarriak egiten ahalko ditu, baina horiek ez dute inola ere etenik ekarriko espedienteen tramitazioan”.

Hogeita hemezortzi. 248. artikuluar 5. apartatua gehitzea.

“5. Nafarroako Gobernuak erregelamenduz ezarriko du zein kasutan erabiltzen ahalko duten toki entitateek barne kontrol erraztuko araubide bat, bai eta zein diren haren ezaugarriak ere”.

**Lehen xedapen gehigarria.** Toki entitateentzako konpentsazioak, ekonomia-jardueren gaineko zergaren erreformaren eraginez sarrerak galtzeagatik.

Toki entitateen finantza nahikotasunaren printzipioa babesteko eta ekonomia-jardueren gaineko zergaren erreformaren ondorioz sarreretan izan dezaketen jaitsiera konpentsatzeko, Nafarroako udalek ekarpen bat jasoko dute toki ogasunek Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen funtsetik.

**Bigarren xedapen gehigarria.** Nafarroako Administrazio Auzitegiaren epaien edo ebazpenen ondoriozko zorrak.

1. 2021eko ekitaldian, Nafarroako toki entitateek, salbuespenez, epe luzerako kreditu-eragiketak hitzartzen ahalko dituzte Nafarroako Administrazio Auzitegiaren epaien edo ebazpenen ondoriozko zorren ordainketa finantzatzeko, epai edo ebazpen horiek eragiten diotenean toki entitateari edo haren menpeko entitateei edo toki entitatearen partaidetza dutenei, entitate horiek Europako Kontuen Sistemaren definizio eta mugaketaren arabera administrazio publikoen sektorean sailkatuta egon nahiz ez.

2. Xedapen honen babesean hitzartzen diren zorpetze eragiketarako, finantza tutoretzaren arloan eskumena duen organoak baimena eman beharko du aurretik, eta aurreko 1. apartatuan aipatzen diren zorrak ordaintzeko baizik ez dira erabiliko.

3. Xedapen honetaz baliatzen den toki entitateak finantza saneamendurako plan bat onetsi eta finantza tutoretzako organoari igorri beharko dio baimen eskaerarekin batera; plan horretan azertuko da entitatearen gaitasuna egungo eta etorkizuneko ordainketa betebeharre aurre egiteko, eta haren konpromisoa jasoko da, horretarako beharrezkoak diren finantza arloko jasagarritasun neurriak hartzeko.

4. Toki entitateko kontuhartzaitza organoak saneamendu planaren betetzeari buruzko txosten bat eman beharko du urtero, eta toki korporazioko osoko bilkurari aurkeztu, jakinaren gainean egon dadin, bai eta finantza tutoretzaren arloko eskumena duen organoari igorri ere.

Planaren ez-betetzen bat gertatuz gero, toki entitateak ezin izanen du epe luzeko zorpetze-eragiketarik hitzartu edozein inbertsio mota finantzatzeko. Horrez gain, finantza tutoretzaren arloko organo eskudunak aparteko neurriak proposatzen ahalko ditu, ukitutako toki entitateek bete beharrekoak.

**Azken xedapenetako lehenbizikoa.** Toki ogasunek transferentzia arrunten eta beste laguntza batzuen kontzeptuetan Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen funtsaren zenbatekoa eta banaketa 2020. urterako ezartzen dituen Foru Legearen aldaketa.

2021eko urtarrilaren 1etik aurrera ondorioak izateko, 15. artikulua gehitzen zaio Toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen funtsaren zenbatekoa eta banaketa 2020rako ezartzen dituen otsailaren 27ko 3/2020 Foru Legeari; hau da haren testua:

“15. artikulua. Nafarroako udalentsako konpentsazioa, ekonomia-jardueren gaineko zergaren erreformaren eraginez sarrerak galtzeagatik.

Nafarroako udalek toki ogasunek Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen funtsaren ekarpen bat jasoko dute, ekonomia-jardueren gaineko zergaren erreformak diru-bilketan eraginaren duen galeraren konpentsazio gisa.

Ekarpenaren zenbatekoa urtero ezarriko du Ekonomia eta Ogasun Departamentuak, ekono-

mia-jardueren gaineko zergaren erregistroko datuetan oinarriturik, aurreko zergaldiari dagokionez.

Ekarpenaren zenbatekoa, 5.000 biztanleko edo gutxiagoko udalerrri bakoitzarentzat, hau izanen da: ekonomia-jardueren gaineko zergan, salbuespenik egon ez balitz, zergaldian eta negozio-zifra-zen zenbateko garbia 1.000.000 euro baino txikiagoa duten zergadunengandik jasoko zituzkeen tributu kuoten ehuneko ehun. 5.000 biztanle baino gehiagoko udalerrien kasuan, ekarpena kuota horien 100eko 95 izanen da.

Tributu kuota horiek ezartzeko, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 154. artikuluan aipatzen diren indizeak izanen dira udal bakoitzak 2020ko ekitaldian aplikatu dituenak”.

**Azken xedapenetako bigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.





## Foru Lege proiektua, ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen.

### AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak. Proiektu hori 2019ko abenduaren 13ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### 1. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA**

3. artikulua 3. puntuko a) apartatua aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

“a) Ingurumen-ebaluazio estrategikoa, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa eta ingurumen-ukipenen ebaluazioa”.

Zioak: Ingurumen-ukipenen ebaluazioa gehitu da, esku-hartze modu hori proposatu baita 29. artikuluan araututako jarraipenik gabeko proiektu, jarduera, jarduketa eta instalazioetarako ingurumen-baimen bateratuaren alternatiba gisa. Haren egokitasuna 24. zuzenketan justifikatzen da.

### 2. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA**

3. artikulua 5. puntua aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

“3. Funtsezkoa ez den aldaketa bat aldaketa garrantzitsutzat hartu ahal izanen da, baldin eta instalazioaren funtzionamendu-baldintzetan aldaketa garrantzitsuak eragiten baditu, hain zuzen ere baimen horretan jaso behar diren aldaketak;

hartara, baimen hori aldatu beharko da, erregelamendu bidez zehaztuko den prozedura sinplifikatuaren bidez”.

Zioak: Aldaketa nabarmena ez dago araututa Estatuko oinarrizko legerian. Hala ere, Nafarroako araudian sartuta zegoen orain arte, eta tresna egokia izan da teknika erabilgarri onenak (TEO) ezartzeko funtsezkoak ez diren aldaketak proiektatzen dituzten instalazioetan; izan ere, Estatuko araudiaren arabera, aldaketa horiek Administrazioak inolako esku-hartzerik egin gabe gara zitzaketan. Horrelako instalazioetan, kutsatzaileenak izan daitezkeenetan, horien irismenak prozedura erraztuaren bitartezko esku-hartze bat eskatzen du, zeinak ez duen gehiegi luzatuko haien ezarpena eta TEOen ezarpena bermatuko baitu.

### 3. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA**

6. artikulua izenburua aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“Ingurumen-ebaluazioa eta ingurumen-ukipenen ebaluazioa”.

Zioak: Ingurumen-ukipenen ebaluazioa gehitzen da, eta 3. artikulua testuan txertatzen da. Haren egokitasuna 24. zuzenketan justifikatzen da.

### 4. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA**

6. artikulua bigarren paragrafo bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Ingurumen-ukipenen ebaluazioa egingo zaie ingurumenean eragin egiaztatua duten eta, beraz,

ingurumenean dituzten ondorioen ebaluazioa egin behar zaien jarduera eta proiektuei, baldin eta Estatuko oinarrizko legerian jasotzen ez badira garrantzi txikiagoko proiektuak edo atalase apalagokoak izateagatik. Ingurumen-ukipenaren ebaluazioa egin behar zaien jarduerak foru lege honen 2. eranskinean jasota daude, eta lege horren I. bis tituluan adierazitakoaren arabera izapidetuko dira”.

Zioak: Ingurumen-ukipenen ebaluazioa gehitzen da, eta 3. artikulua testuan txertatzen da. Haren egokitasuna 24. zuzenketa justifikatzen da.

## 5. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA**

6. artikuluari laugarren paragrafo bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Lurralde- eta hirigintza-plangintzako tresnak behin betiko onesteko eskumenak esleituta dituzten toki-erakundeek ingurumen-organo gisa jardunen dute, Ingurumen-ebaluazioari buruzko martxoaren 9ko 21/2013 Legearen 11.3 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako. Hala ere, 5.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrien kasuan, jarduera hori bere gain hartu ahal izanen du ingurumen-ebaluazioaren eskumenak dituen Nafarroako Foru Komunitateko administrazioko organoak, bi administrazioek sinatutako hitzarmenaren bidez”.

Zioak: Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 11.3 artikulua garatzen da, lurralde-antolamenduko eta udal-hirigintzako plangintzako tresnen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedurak izapidetzean ingurumen-organoa identifikatzeari dagokionez, horien izapidetzea eta onespena oso-osorik toki-entitatei badagozkie. Kontzeptuak argitzeaz eta segurtasun juridikoa handitzeaz gain, administrazio-espedienteak arintzen dira, errekursoak optimizatzen dira eta administrazio publikoen jarduketan bikoiztasunak saihesten dira. Nagusiki tokikoak diren tresna horiek, aldi berean, lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloko esparru orokorra ezartzen duten lurralde-antolamenduko eta udal-hirigintzako plangintzako tresnak garatzen dituzte, eta horietan esku hartzen dute lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloan

eskumenak dituzten Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioeko organoek, indarrean dagoen foru-legeriaren arabera. Azken horiei dagokienez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan ingurumen-ebaluaziorako eskumena duen organoa ingurumen-organoa izanen da ingurumen-ebaluazio estrategikoaren ondorioetarako, Ingurumen-ebaluazioari buruzko martxoaren 9ko 21/2013 Legean adierazitakoaren arabera.

## 6. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA**

7. artikulua lehenengo paragrafoa aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

“a) Instalazio, proiektu edo jarduera batek ingurumen-baimen bat baino gehiago behar duenean eta baimen horiek emateko eskumena Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan ingurumen arloko eskumena duen departamentuarena denean, baimen horiek ingurumen-baimen integratua edo ingurumen-baimen bateratua bateratuko dira foru lege honetan ezarritakoarekin bat, aplikatu beharreko araudi sektorialean eskatzen diren betekizunak ere bertan jasota. Nolanahi ere, beharrezkoak badira, honakoak integratuko dira: hondakinak kudeatzeko baimena, jabari publiko hidraulikora zeharkako isurketak egiteko baimena eta atmosferarako isuriak egiteko baimena; horrez gain, ingurumen-inpaktuaren adierazpena edo ingurumen-inpaktuaren txostena ere jasoko ditu, baldin eta exigitzekoak badira”.

Zioak: Ingurumen-inpaktuaren txostena gehitu da, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean jasotako proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedurak ebazteko modu guztiak jaso daitezten.

## 7. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA**

7. artikuluari b) letra gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“b) Gainera, ingurumen-baimen integratua eta ingurumen-baimen bateratua, lurzoru urbanizaezinez jarduerak egiteko baimena txertatuko da”.

Zioak: Lurzoru urbanizaezinezko jardueren espezifikotasunak, ingurumen-baimen eta ingurumen lizentziei dagokienez, gomendagarri egiten du integrazio-modu hori, zeina baita gaur egun modu egokian egiten dena, 8. zuzenketa proposatutako alderantzizko formularen alternatiba gisa.

## 8. ZUZENKETA

### **NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA**

7. bis artikulua gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“7 bis artikulua. Ingurumen-baimen eta ingurumen-txostenak integratzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko beste departamentu batzuen eskumeneko baimen substantiboetan.

Instalazio, proiektu edo jarduera batek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko departamentuen baimen substantiboa behar badu, eta, halaber, ingurumenaren arloko departamentu eskudunaren eskumena den ingurumen-baimen edo ingurumen-txostena behar badu, baimen edo txosten horiek hartan sartuko dira, sektoreko araudiak ezar ditzakeen salbuespenekin.

Beharrezkoak badira, honakoak integratuko dira: hondakinak kudeatzeko baimena, jabari publiko hidraulikora zeharkako isurketak egiteko baimena eta atmosferarako isuriak egiteko baimena; horrez gain, ingurumen-inpaktuaren adierazpena edo ingurumen-ukipenen txostena jasoko ditu”.

Nolanahi ere, ingurumen-baimenak edo ingurumen-txostenak negatiboak badira, edozein unetan eman direla ere, baina organo substantiboak baimen substantiboa eman aurretik jaso baditu, baimen hori emateko organo eskudunak ebazpena emanen du, ebazpen hori eragin duten arrazoiak azalduz, eta prozedurari amaiera eman eta jarduketak artxibatu eginen ditu.”

Zioak: Horrela, sendotu egiten da Nafarroako Gobernuako departamentuen artean egun kontsultak egiteko dagoen jardunbidea, ingurumen-inpaktuaren adierazpena egin behar ez den kasuetan, horrelakoetan Estatuko oinarritzko araudia aplikatzen baita.

## 9. ZUZENKETA

### **NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA**

7. ter artikulua gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“7. ter artikulua. Ingurumen-baimen integratua, ingurumen-baimen bateratua, ingurumen-ukipenen txostena eta jarduera sailkatuaren lizentzia aurkaratzea.

1. Interesdunek foru lege honetan araututako prozeduratan egindako txosten lotesleen aurka egin ahal izanen dute, bai ingurumen-baimen integratua, ingurumen-baimen bateratua, ingurumen-ukipenen txostena eta jarduera sailkatuaren lizentzia emateko prozedurari amaiera ematen dion administrazio-ebazpena aurkaratuz, edo aipatutako txosten lotesleak aurkaratuz, baldin eta horiek baimen hori ematea eragozten badute, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

2. Ingurumen-baimen integratua, ingurumen-baimen bateratua eta ingurumen-ukipenen txostena emateko prozedurari amaiera ematen dion ebazpena administrazio-bidean aurkaratzeak txosten lotesle edo erabakigarrietan ezarritako baldintzei eragiten dienean, errekurtsua ebazteko eskumena duen organoak halakoak eman dituzten organoei helaraziko die errekurtsua, horiek, egoki iritziz gero, alegazioak aurkez ditzaten hamabost eguneko epean. Alegazioak epe barruan eginez gero, errekurtsua ebazteko erabakigarriak izanen dira.

3. Jarduera sailkatuaren lizentziaren aurkaratzeak, administrazio-bidean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren menpeko organoek egindako txosten lotesle edo erabakigarrietan ezarritako baldintzei eragiten badie, aurkaratze hori departamentu horiei helarazi beharko zaie, egoki baderitzote, lotesle eta/edo erabakigarriak.

4. Administrazio-bidea amaitzen duen ebazpenaren aurka jar daitezkeen administrazioarekiko auzi-errekurtsioan nahitaezko txosten lotesle edo erabakigarri buruzko uziak ondorioztatzen badira, txostenak egin dituen administrazioa kodemandatutzat joko da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen ezarritakoaren arabera. Instalazio, proiektu edo jarduera batek Nafarroako Foru

Komunitateko Administrazioeko departamentuen baimen substantiboa behar badu, eta, halaber, ingurumenaren arloko departamentu eskudunaren eskumena den ingurumen-baimen edo ingurumen-txostena behar badu, baimen edo txosten horiek hartan sartuko dira, sektoreko araudiak ezar ditzakeen salbuespenekin.

Zioak: 43. artikulua ordeztu du, idazketa hobetzen baitu eta foru lege honek arautzen dituen figura baimentzaile gutxiei eragiten baitie.

## 10. ZUZENKETA

### EH BILDU NAFARROA

#### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

10.2. artikulua ordezteko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“10. artikulua Parte-hartze publikoa, zabalkun-dea eta informazioa eskuratzea.

(...)

2. Oro har eta behar bezala justifikatutako salbuespenetan kenduta, ingurumen arloko esku-hartzearen xede diren plan eta programa guztietan izanen dute herritarrek parte-hartze egiazkoa eta eragingarria, behin betiko onespina eman aurretik gauzatuko den parte-hartze prozesu bat betez, kontsulta izaerakoa. Partaidetza-prozesua partaidetza-plan baten bidez eginen da, zeinak honakoak izan beharko baititu gutxienez: planeamenduan interesa duten gizarte-eragile eta herritarren identifikazioa; proposamen edo alternatiba garrantzitsuenen laburpenak, herritarrek errazago uler ditzaten eta errazago zabal daitezzen herritarren artean; bideragarritasun eta jasangarritasun ekonomikoari buruzko memoria; zabalkunderako eta partaidetzarako metodologia eta tresnak, barne direla bai online parte hartzeko sistemak, bai bilerak proiektu, plan edo programen edukia eta baloratutako alternatibak azaltzeko, partaidetza-prozesu horretan genero-ikuspegia sartuko dela bermatuta; eta, azkenik, gauzatutako partaidetza-prozesuaren konklusio baloratuak”.

Zioak: Nafarroako Berdintasunerako Institutuak aurreproiektuari buruz egindako oharren txostenean proposatzen zen proposamen hori sartzeara, arauak eragin positiboa izan dezan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean.

## 11. ZUZENKETA

### EH BILDU NAFARROA

#### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

10.5. artikulua ordezteko zuzenketa. Hauxe izanen litzateke testu berria:

“10. artikulua. Parte-hartze publikoa, zabalkun-dea eta informazioa eskuratzea.

(...)

5. Ingurumen arloko eskumena duen departamentuak informazio orokorra zabalduko du aldizka, ingurumen adierazleen bidez, aipatutako alderdien gainean.

Ingurumen arloko eskumena duen departamentuak modu sistematizatuan duen informazioa argitara emanen da eta, horretarako, herritar guztiek eskura izaten lagunduko duten bitartekoak erabiliko dira, eta komunikazio ez-sexista bete beharko da.

Artikulu honetan arautzen den informazioa publikoa izanen da Ingurumen arloan informazioa eskuratzeko, herritarrek parte hartzeko eta justiziarako irispidea izateko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legean aurreikusitakoarekin bat”.

Zioak: Nafarroako Berdintasunerako Institutuak aurreproiektuari buruz egindako oharren txostenean proposatzen zen proposamen hori sartzeara, arauak eragin positiboa izan dezan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean.

## 12. ZUZENKETA

### NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

1. artikulua 13. puntua aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

“1. Ingurumen-baimen bateratuaren araubideari lotuta egonen dira foru lege honen 1. eranskinean jasotako instalazio publiko nahiz pribatuen ezarpena, funtzionamendua eta aldaketa. Baimen hori instalazioak edo horien aldaketak eraiki eta muntatu aurretik emanen da”-

Zioak: Idazketa aldatu da, errazago uler dadin, eta instalazioen balizko lekualdaketa buruzko aipamena kendu da, horietarako ez baita inolako erregulazio edo baldintza espezifikorik sartu.

**13. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA  
GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

3. artikularen 14. puntua aldatzeko zuzenketa. Testua honela gedituko da:

“3. Abereen hazkuntza intentsiborako instalazioen kasuan, ingurumen-baimen bateratuaren baldintzak animalien ongizateari buruzko legeria kontuan hartuta finkatuko dira”.

Zioak: Animalien ongizateari buruzko araudi sektorialean ezarritakoa gehitu da.

**14. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA  
GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

14. artikuluari 4. puntua gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“4. Aplikatzekoa den legeriaren arabera eskatu beharreko ingurumen kalitatearen betebeharrak betetzeko beharrezkoa denean aplikatzea teknika erabilgarri onenak erabiliz lor daitezkeen baldintzak baino zorrotzagoak, ingurumen-baimen bateratua eskuratzeko nahitaezkoa izanen da baldintza osagarriagoak aplikatzea, ezertan galazari gabe bestelako neurriak ere ezartzea, ingurumen kalitatearen arauak betetzeko har daitezkeena”.

Zioak: Ingurumen-baimen integratuari buruzko estatuko araudian indarrean dagoen artikulua bat da, eta egokia da bateratuari ere aplikatzea.

**15. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA  
GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

15. artikuluko lehen paragrafoa aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“Foru lege honen 1. eranskinean jasotako jardueretako baten edo hura betetzeko erabiltzen diren instalazioen titularrek betebeharrak izan behar dituzte:”

Zioak: 23. eta 24. zuzenketak aplikatzearen ondorioz egindako aldaketara egokitu da idazketa.

**16. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA  
GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

17. artikuluko bigarren paragrafoa aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

1. eranskineko jardueretarako, eskaeraren edukia erregelamenduz ezartzen dena izan da, baina, gutxienez ere, jarduera edo instalazioa zehatz-mehatz azaltzen duen agiri tekniko beharko du, eta, urbanizaezintzat sailkatuta dagoen lurzoruan badaude, horrekin batera, ingurumen ukipenen azterketa bat, ingurumenaren gaineko balizko ondorioak identifikatu eta ebaluatuko dituen, bereziki Natura 2000 Sarearen eta babes berezia duten beste eremuen gainekoa.

Zioak: Ingurumen-ukipenen eta Natura Sarearen gaineko ukipenaren azterketa nahitaezkoa izatea zehazten da, instalazioak urbanizaezin gisa sailkatutako lurzoruan kokatu nahi direnean. Bestela, eskakizun horrek ez du garrantzirik horrelako instalazioetarako.

**17. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA  
GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

21. artikuluko 2. puntua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Eduki hori artikularen 1. puntuan sartuta dago.



**18. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA  
GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

23. artikuluko 2. puntua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Eduki hori, modu sinplifikatuan, 23. artikuluko 1. puntuan sartu da 16. zuzenketan.

**19. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA  
GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

23. artikuluko 1. puntua aldatzeko zuzenketa.  
Hona testua:

“1. Titularrak jarduerari hasiera ematen ez badio 21.3 edo 21.4 artikuluan adierazitako epean, ingurumen-baimen bateratuak eragina galduko du eta eragingabe bilakatuko da”.

Zioak: Artikuluaren 1. eta 2. puntuek bat egiten dute, erredundantzia ez erortzeko eta artikulua sinplifikatzeko.

**20. ZUZENKETA**

**EH BILDU NAFARROA  
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

24.1. artikulua ordeztzeko zuzenketa. Hauxe izanen litzateke testu berria:

“24. artikulua. Instalazioaren edo jardueraren aldaketa.

1. Ingurumen-baimen bateratua behar duten instalazioetan edo jardueretan egiten diren aldaketak funtsezkoak edo ez-funtsezkoak izan daitezke.

Instalazioaren edo jardueraren aldaketa bat funtsezkoa dela ulertuko da hasieran emandako ingurumen-baimenean aurreikusi gabeko aldaketa bat egin nahi denean, funtzionamendu baldintza normalean, eta aldaketa horrek instalazioaren ezaugarriei, ekoizpen prozesuei, funtzionamenduari edo hedaturari eragiten badio, ingurumenaren gaineko eragin handiagorekin, Babes Zibilaren arloan eskuduna den departa-

mentuaren alde aurreko txostena behar denean eta ondorengo alderdiei dagokienez erregelamenduz ezartzen diren irizpideetatik edozein betetzen denean:

- a) Instalazioaren tamaina eta ekoizpena.
- b) Instalazioak erabiltzen dituen natura baliabideak.
- c) Ur eta energia kontsumoa instalazioan.
- d) Sortutako hondakinen bolumena, pisua eta tipologia.
- e) Instalazioaren ukipena jasan dezaketen eremu geografikoetako natura-baliabideen kalitatea eta birsortzeko ahalmena.
- f) Sortutako kutsadura maila.
- g) Istripu arriskua.
- h) Substantzia arriskutsuak erabiltzen hastea edo haien erabilera handitzea.
- i) Arrisku intrintsekoaren maila.

Instalazio edo jarduera bat handitzea edo haren ezaugarriak edo funtzionamendua aldatzea, edozein modutan, funtsezkoa dela ulertuko da aldatzea edo handitzea, berez, 2. eranskinean ezarritako ahalmen mugetara iristen bada”.

Zioak: Ez da Babes Zibilari buruzko irizpiderik ezartzen aldaketa bat funtsezkoa den ala ez zehazteko. Beharrezkoa da zehaztea zer atalase hartu behar diren kontuan jarduera bat funtsezko aldaketa den ebaluatzeko, pertsonen segurtasunean eragin handiagoa duelako. Kontrakoak diskrezionalitatea eta inprobisazioa dakartza kasu bakoitzerako. Erregelamendu bidez arautu ahal izateko, funtsezko aldaketatzat hartzeko atalase bat ezartzen duen letra berri bat sartzeari proposatzen da. Halaber, uste dugu beharrezkoa dela zenbaketan gehitzea pertsonen segurtasunarekin zerikusia duen alderdi bat.

**21. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA  
GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

24. artikuluko 2. puntua aldatzeko zuzenketa.  
Hona testua:

“2. Egin gogo diren aldaketak lurzoru urbanizazinean baldin badaude eta berekin ekartzen badute jarduera edo erabilera aldaketa edo bolu-

mena handitzea, eta/edo zerbitzu eskaera berria behar badute, beharrezkoa izanen dute beti lurzoru urbanizaezineko jardueretarako baimen berri bat. Nolanahi ere, lurralde-antolamenduaren eta hirigintzaren arloan indarrean dagoen legedian xedatutakoa beteko da".

Zioak: Azken esaldia gehitu da artikuluan Lurraldearen Antolamenduko Legearen aplikazioa aipatzeko.

## 22. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA**

25. artikuluko 1.g puntua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Inguruabar horrek ez du zentzurik artikulua honetan, hurrengo zuzenketa proposatutako 25. bis artikuluari aplikatu beharreko kasua baita.

## 23. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA**

25. bis artikulua gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

"25 bis artikulua. "Ingurumen-baimen bateratua aldatzea, titularrak hala eskatuta.

Ingurumen-baimen bateratuan ezarritako isurketen muga-balioak eta baldintzak titularraren eskariz aldatu ahal izango ditu ingurumen-arloan eskumena duen departamentuak, baldin eta, instalazioan aldaketarik aurreikusi gabe, titularrak justifikatzen badu baldintza berriek antzeko babes-maila izanen dutela eta bat etorriko direla Teknika Erabilgarri Onenak betetzearekin".

Zioak: Titularrak baimena aldatzeko eskaera egiteko aukera gaitzen da, izapidetze sinplifikatu batekin, baldin eta une bakoitzean erabilgarri dauden teknika onenetan zehaztutako ingurumen-babeseko mailak mantentzeko edo hobetzeko egoera bat planteatzen badu.

## 24. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA**

27. artikuluko 2. puntua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

"3. Frogatzen bada itxiera partzialak instalazioaren ahalmena gutxitzea dakarrela, 1. eranskinen ezarritako mugetatik behera gutxitu ere, ingurumen arloko eskumena duen departamentuak ebazpena emanen du instalazioaren ingurumen-baimen bateratua iraungitzeko, eta aplikatzekoa izanen da 45. artikuluan xedatutako instalazioen trantsizio-araubidea.

Zioak: Argi uzten da trantsizio-araubidea 45. artikulukoaren berdina dela.

## 25. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA**

27. artikuluan 2. bis puntua gehitzeko zuzenketa; honako testu hau izanen du:

"2 bis. Instalazioaren itxiera partziala gauzatu ondoren, titularrak ixte partzialari buruzko erantzunkizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, eta bertan adierazi, bere erantzukizunez, itxiera gauzatu dela proiektu teknikoaren eta ezarritako baldintzen arabera, eta hori frogatzen duen dokumentazioa duela.

Zioak: Artikuluaren lehen bi puntuetan araututako itxiera gauzatu ondoren titularrak egin beharreko jarduketekin osatzen da prozedura.

## 26. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA**

29. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Kendu egin da hasierako esku hartzeko modua, eta haren ordean 24. zuzenketa justifikatzen den alternatiba proposatzen da, egokiagoa delakoan.

## 27. ZUZENKETA

### **NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA**

I. bis titulua gehitzeko zuzenketa, testu honekin:

“I bis titulua

Ingurumen-arloko esku-hartzea, ingurumen-ukipenak ebaluatuz

X. artikulua. Ingurumen-ukipenaren ebaluazioa.

1. Ingurumen-ukipenaren ebaluazioa eginen zaie lurzoru urbanizazinean kokatutako proiektuei, foru lege honen 2. eranskinean jasotakoak.

2. Era berean, ingurumen-ukipenaren ebaluazioa egin beharko zaio aurreko puntuan jasotako proiektu baten ezaugarrien edozein aldaketari, baldin eta aldaketa horrek, berez, 2. eranskinean ezarritako atalaseak betetzen baditu.

X. artikulua. Ingurumen-ukipenak ebaluatzeko izapideak eta epeak

Ingurumen-ukipenak ebaluatzeko prozedura izapide hauetan garatuko da:

- a) Hasiera emateko eskabidea.
- b) Ingurumen-ukipenaren espedientearen azterketa teknikoa.
- c) Ingurumen-ukipenaren txostena.

Ingurumen-organoak hiru hilabeteko epea izanen du izapide horiek egiteko, ingurumen-ukipenaren espediente osorik jasotzen denetik zenbaitzen hasita.

X. artikulua. Hasiera emateko eskaera.

Hasteko eskaera sustatzaileak aurkeztu beharko du jarduerarako baimena emateko eskumena duen organo substantiboan, zeinak ingurumen-organoari bidaliko baitio erregelamendu bidez ezartzen den dokumentazioa.

X. artikulua. Ingurumen-ukipenaren txostena.

1. Ingurumen-organoak, espedientearen azterketa teknikoa amaitu ondoren, espediente eba-

tziko du, eta, horretarako, proiektuaren ingurumen-ukipenaren txostena eginen du, espediente osoa jaso eta gehienez ere hiru hilabeteko epean.

2. Ingurumen-ukipenaren txostena aginduzkoa eta erabakigarria izango da proiektua egitearen bidez kotasanari, proiektua gauzatzearen ingurumen-ondorioei, eta, hala badagokio, hura garatu ahal izateko baldintzei, neurri zuzentzaileei eta konpentsazio-neurriei dagokienez. Txosten horren edukia organo substantiboaren baimen-prozedura txertatu beharko da.

3. Ebazpenak zehaztu beharko du, bidezkoa bada, proiektua bateragarria den Natura 2000 Sarea sortu den babes-helburuekin edo ingurumen-arrazoiengatik espazio babestu izendatzea eragin duten helburuekin.

4. Ingurumen-ukipenaren txostena proiektuaren baimenaren organo substantiboari jakinarazi beharko zaio, ebazpenean kontuan har dadin.

X. artikulua. Erantzulearen aitorpena.

Proiektua edo jarduera gauzatu ondoren, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko zaio organo substantiboari, jarduera aurkeztutako proiektuaren arabera egin dela eta ingurumen-ukipenaren txostenean jasotako baldintzak bete direla adierazteko. Organo substantiboak horren kopia bat bidaliko dio ingurumenaren arloan eskumena duen departamentuari.

X. artikulua. Indarraldia eta luzapena.

1. Proiektuaren edo jardueraren ingurumen-ukipenaren txostenak indarraldia galduko du eta berezko dituen ondorioak sortzeari utziko dio, baldin eta txostena ematen denetik lau urteko epean proiektua edo jarduera gauzatzen hasi ez bada. Kasu horietan, sustatzaileak berriz hasi beharko du proiektuaren ingurumen-ukipenak ebaluatzeko izapidea.

2. Sustatzaileak ingurumen-ukipenaren txostenaren indarraldia luzatzea eskatu ahal izanen du aurreko apartatuan aurreikusitako epea igaro baino lehen. Sustatzaileak egindako eskaerak aurreko paragrafoko lau urteko epea etengo du, eta beste bi urtez luzatu ahal izanen da”.

Zioak: Egokiagotzat eta eraginkorragotzat jotzen da esku hartzeko modu hori, 29. artikuluan agertzen zenaren aurka, honako argudio hauetan oinarrituta:

- Ingurumen-baimenaren figuraren ordean, nahitaezko txosten loteslea ezartzen da, organo eskudunak izapidetzen duen baimen-prozedura substantiboaren esparruan.

- Lehendik dagoen prozedura batean integrazteak enpresei karga administratibo handiagoa ekiditen die prozedurak integrazteagatik, eta ez da beharrezkoa titularrak bere proiektua leihatila batean aurkeztea.

- Prozedura sinplifikatzeak berekin dakar ingurumen-espeditentea ebazteko gehieneko epea 6 hilabetetik 3 hilabetera jaistea.

- Prozedura antzekoa da, baina irismen sinplifikatuarekin, Europako Erkidegoko eta Estatuko araudiak eskatzen duen ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren antzekoa, baina eragin potentzial txikiagoa duten proiektuen tipologia batentzat, nahiz eta nahikoa garrantzi duen Foru Administrazioak esku har dezan, Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko 4/2005 Foru Legearen aplikazioarekin metatutako esperientzian oinarrituta.

## 28. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA**

33. artikuluko 1. puntuari d bis) apartatua gehitzeko zuzenketa, testu honekin:

“d bis) Aurkeztutako dokumentazio teknikoaren erregelamendu bidez zehazten diren administrazio publikoko organoetara bidaltzea, baimen substantiboak emateko, bereziki abeltzaintza-ustiategien arloan eskumena duen departamentura”.

Zioak: Foru Komunitateko Administrazioaren baimen-prozeduretarako leihatila bakar gisa sailkatutako jarduera-lizentziaren izapidetzea erabiliko da, prozedura horiek arinduz eta sustatzaileen zuzenkeraren kargak erraztuz.

## 29. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA**

35. artikuluko 4. puntua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Egokiagotzat jotzen da baimen horiek jarduera sailkatuaren lizentziarekin ez integratzea, gainerako ingurumen-baimenetan sartzen ez diren moduan, bi eremuetako araudi teknikoek arautzen dituzten gaiak desberdinak direlako.

## 30. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA**

38. artikuluko 1. puntuko g) epigrafea kentzeko zuzenketa.

Zioak: Egokiagotzat jotzen da artikulua bereizi batean sartzea, ofiziozko aldaketa bati ez dago kiolako.

## 31. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA**

38. bis artikulua gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“38 bis artikulua. Jarduera sailkatuaren lizentziaren baldintzak aldatzea, titularrak eskatuta.

Jarduera sailkatuaren lizentzian ezarritako isuriaren muga-balioak eta baldintzak aldatu ahal izanen ditu toki-entitateak, titularrak eskatuta, baldin eta, instalazioan aldaketarik aurreikusi gabe, titularrak justifikatzen badu baldintza berriek antzeko babes-maila izanen dutela eta bat etorriko direla Teknika Erabilgarri Onenak betetzearekin”.

Zioak: Egokiagotzat jotzen da artikulua bereizi batean sartzea, ofiziozko aldaketa bati ez dago kiolako, horixe baita 38. artikuluan jasotzen dena.

## 32. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA**

39. artikulua izenburua aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“Jardueraren edo instalazioaren aldaketa”.

Zioak: Izenburua zuzendu da, artikulua berriarekin nahasterik egon ez dadin.

**33. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA  
GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

39. artikulua azken paragrafoa aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

6. Egin gogo diren aldaketak lurzoru urbanizaezinean baldin badaude eta berekin ekartzen badute jarduera edo erabilera aldaketa edo bolu-  
mena handitzea, eta/edo zerbitzu eskaera berria  
behar badute, beharrezkoa izanen dute beti lurzo-  
ru urbanizaezineko jardueretarako baimen berri  
bat. Nolanahi ere, lurralde-antolamenduaren eta  
hirigintzaren arloan indarrean dagoen legedian  
zedatutakoa beteko da".

Zioak: Azken esaldia gehitu da, Lurraldearen  
Antolamenduko Legearen aplikazio orokorra aipa-  
tzeko.

**34. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA  
GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

43. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gai berari buruzkoa da 9. zuzenketa,  
zeinak, jarduera sailkatuaren lizentziari ez ezik,  
foru lege honek arautzen dituen gainerako figurei  
ere aplikatzen baitzaie, eta idazketa egokiagoa  
eta arrazionalagoa hartzen du.

**35. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA  
GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

45. artikuluko 7. eta 8. puntuak kentzeko zuzenketa.

Zioak: Kontrako noranzkoan aldatuz gero,  
dagokion baimena lortzeko nahitaezko proiektu  
teknikoa aurkezteko beharra aplikatu behar da,

existitzen ez den instalazio batetik abiatuko bagi-  
na bezala, eta hori beste artikulua batzuetan arau-  
tuta dago.

**36. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA  
GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

45. artikulua lehenengo paragrafoa alda-  
tzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

"1. Ingurumen-baimen integratua duen jardue-  
ra edo instalazio batek aldaketa fisiko edo opera-  
tibo bat egin nahi badu, ingurumen-baimen inte-  
gratuaren menpeko jarduera gisa ez sailkatzea  
dakarrena, instalazioaren titularrak ingurumen  
arloko eskumena duen departamentuari jakinara-  
zi beharko dio, kasuko proiektu teknikoa aurkez-  
tuz".

Zioak: Paragrafo horretan 1. zenbakia sartu  
behar da, zenbakitutako hurrengo paragrafoen  
hurrenkeran, eta zenbaki horiek ere aldatu egingen  
dira.

**37. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA  
GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

45. artikulua 1.bis puntua gehitzeko zuzen-  
keta. Hona testua:

"1 bis. Jarraian, ingurumen-arloan eskumena  
duen departamentuak aldaketa baimentzeko  
ebazpena emanen du, eta aldaketa hori egiteko  
baldintzak ezarriko ditu".

Zioak: 1. puntuaren ondorengo izapide logikoa  
zehaztu da.



**38. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA  
GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

46. artikuluko 1. puntutik 5. puntura bitartekoak kentzeko zuzenketa.

Zioak: Artikuluaren edukia aldatzen da, 45. artikuluan ezarritakoarekin eta, ondorioz, haren ize-narekin koordinatuta, modu sistematiagoan eta argiagoan aurkezteko aurreikusitako 3 esku-har-tze erregimenen arteko trantsizioa.

**39. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA  
GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

46. artikuluen izenburua aldatzeko zuzenke-ta. Testu hau izanen du:

“Jarduera sailkatuaren lizentziaren edo inguru-men-baimen bateratuaren erregimenetik inguru-men-baimen bateratu edo integratuaren erregime-nera igarotzea”

Zioak: Artikuluaren edukia aldatzen da, 45. arti-kuluan ezarritakoarekin eta, ondorioz, haren ize-narekin koordinatuta, modu sistematiagoan eta argiagoan aurkezteko aurreikusitako 3 esku-har-tze erregimenen arteko trantsizioa.

**40. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA  
GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

6. artikuluen 46. puntua aldatzeko zuzenke-ta. Testua honela geldituko da:

“6. Jarduera sailkatuko lizentzia bat aldatzeak berekin badakar jarduerak ingurumen-baimen integratua edo bateratua behar izatea, edo inguru-men-baimen bateratu bat aldatzeak berekin bada- kar jarduerak ingurumen-baimen integratua behar

izatea, sustatzaileak tramitatu beharko du eskaera Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan ingurumen arloko eskumena duen departamen-tuan. Nafarroako Foru Komunitateko Administra-zioan ingurumen arloko eskumena duen departa-mentuak jakinaraziko dio toki entitateari ingurumen-baimen integratu edo bateratua eman duela, noizbait emandako jarduera sailkaturako lizentzia bertan behera utz dezan, beharrezkoa denean”.

Zioak: Artikuluaren edukia aldatzen da, 45. arti-kuluan ezarritakoarekin eta, ondorioz, haren ize-narekin koordinatuta, modu sistematiagoan eta argiagoan aurkezteko aurreikusitako 3 esku-har-tze erregimenen arteko trantsizioa.

**41. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA  
GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

1. artikuluen 48. puntua aldatzeko zuzenke-ta. Testua honela geldituko da:

“1. Nafarroako Foru Komunitateko Administra-zioari dagozkio Nafarroan egiten diren eta foru lege honen xede diren jarduera eta instalazioen ingurumen ikuskapenak egiteko eskumenak, bal-din eta ingurumenaren arloko eskumena duen departamentuak ingurumen-inpaktuaren adieraz-pena eman badie edo abian jartzeko baimena eman badie edo ingurumen-ukipenen txostena eman badie”.

Zioak: Lehen legean jasota ez zegoen inguru-men-ukipenen txostena sartu da.

**42. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA  
GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

3. artikuluen 48. puntua aldatzeko zuzenke-ta. Testua honela geldituko da:

“3. Ingurumen ebaluazio estrategikoa, inguru-men-inpaktuaren ebaluazioa edo ingurumen-uki-penen ebaluazioa behar duten plan, proiektu eta jardueren kasuan, organo substantiboak eginen

du ikuskapena ingurumen adierazpen estrategikoan edo ingurumen-inpaktuaren adierazpenean edo ingurumen-ukipenen txostenean ezarritako baldintzak betetzen direla ziurtatzeko. Hori galarazi gabe, ingurumenaren arloan eskudun den departamentuak organo eskudunei informazioa eskatzen ahalko die proiektua onetsi edo baimentzeko, eta, halaber, adierazpen estrategikoa edo ingurumen-inpaktuaren adierazpena edo ingurumen-ukipenen txostena egiten direla eta zuzenak direla ziurtatzeko behar diren egiaztapenak egiten ahalko ditu”.

Zioak: Lehen legean jasota ez zegoen ingurumen-ukipenen txostena sartu da.

#### 43. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA**

2. artikulua 53. puntua aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

“2. Ingurumen-baimen integratuen eta errege-lamendu bidez zehazten diren ingurumen-baimen bateratuen titularrek urtean behin gutxienez ingurumen-arloan eskumena duen departamentuari jakinaraziko dizkiote instalazioari dagozkion isuriei, isuriei eta hondakin-transferentzietan buruzko datuak, horiek zehazteko erabilitako metodologia eta metodologia horren adierazgarritasuna egiaztatzeko behar besteko informazioa zehaztuta”.

Zioak: Gehiegizkotzat jotzen da ingurumen-baimen bateratua behar duten instalazio mota guztiek ezarritako jakinarazpena egitea, eta, beraz, hori aplikatuko litzaiekeen instalazioak erregelamendu bidez ezartzea planteatzen da.

#### 44. ZUZENKETA

**EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

54. artikulua ordeztzeko zuzenketa. Hauxe izanen litzateke testu berria:

“54. artikulua. Publizitatea.

Ikuskapen jarduketan emaitzak jendearen esku jarri beharko dira, eta horretarako muga bakarrak legedian ingurumen gaiaren gaineko informazioa eskuratzeko eskubideaz ezarritakoak dira. Foru

lege hau aplikatu ondoren sortzen diren datuen erregistroetan, sartutako informazioak sexuaren arabera bereizita egon beharko du”.

Zioak: Nafarroako Berdintasunerako Institutuak aurreproiektuari buruz egindako oharren txostenean proposatzen zen proposamen hori sar-tzea, arauak eragin positiboa izan dezan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean.

#### 45. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA**

57. artikulua izenburua aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“Ingurumen-inpaktuaren adierazpenen eta ingurumen-ukipenen txostenen jarraipena”.

Zioak: Lehen legean jasota ez zegoen ingurumen-ukipenen txostena sartu da.

#### 46. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA**

1. artikulua 57. puntua aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

“1. Organo substantiboari dagokio ingurumen-inpaktuaren adierazpena edo ingurumen-ukipenen txostena betetzen direla jarraitzea”.

Zioak: Lehen legean jasota ez zegoen ingurumen-ukipenen txostena sartu da.

#### 47. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA**

2. artikulua 57. puntua aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

“2. Ingurumen-inpaktuaren adierazpenak edo ingurumen-ukipenen txostenak zehazten ahalko dituzte, behar izanez gero, bertan ezarritako baldintzak betetzeko jarraipenaren betebeharrak. Ondorio horietarako, sustatzaileak jarraipen txostena igorriko dio organo substantiboari, kasuko ebazpenetan ezarritako baldintzak edo neurri zuzentzaileak eta konpentsatzaileak betetzen direla frogatzeko, hala egitea ezarri bada ingurumen-inpaktuaren adierazpenean edo ingurumen-ukipenen txostenean, betiere aipatu ebazpenetan ezarritako baldintzetan. Jarraipen txostenean jasoko da ingurumena zaintzeko programan ezarritako neurriak egiaztatzeko zerrenda bat. Ingurumena zaintzeko programa eta aipatu zerrenda jendaurrean jarriko dira organo substantiboaren egoitza elektronikoan”.

Zioak: Lehen legean jasota ez zegoen ingurumen-ukipenen txostena sartu da.

#### 48. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA  
GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

3. artikulua 57. puntua aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

“3. Ingurumenaren arloko eskumena duen departamentuak informazioa eskatzen ahalko du, baita beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen guztiak egiten ere, ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren edo ingurumen-ukipenen txostenaren baldintzak betetzen direla ziurtatzeko”.

Zioak: Lehen legean jasota ez zegoen ingurumen-ukipenen txostena sartu da.

#### 49. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA  
GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

3. artikulua 60. puntua aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

“3. Eskatzekoa izan arren, ingurumen-inpaktuaren adierazpenik edo ingurumen-ukipenen txostenik gabe ari diren jardueren kasuan, inguru-

menaren arloko eskumena duen departamentuak jardueraren funtzionamendua legeztatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzeko eskatuko dio organo substantiboari, jarduera ingurumen-inpaktuaren edo ingurumen-ukipenen ebaluazioaren menpe jarri eta, behar izanez gero, onespenean edo baimen substantiboa berrikusiz”.

Zioak: Lehen legean jasota ez zegoen ingurumen-ukipenen txostena sartu da.

#### 50. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA  
GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

1. artikulua 63. puntua aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

1. Hutsunerik baldin badago ingurumen-baimen integratua edo ingurumen-baimen bateratua behar duten jardueretan, baita ingurumen-inpaktuaren edo ingurumen-ukipenen ebaluazioa behar duten proiektuen exekuzioan ere, ingurumenaren arloko eskumena duen departamentuak titularrari eskatuko dio akats horiek zuzentzeko, betiere hartu beharreko neurri zuzentzaileak hartzeko arrazoizkoa den epean. Epe hori ez da sei hilabetekoa izanen da gehienez, behar bezala arrazoituta kasu berezietan salbu.

Zioak: Lehen legean jasota ez zegoen ingurumen-ukipenen txostena sartu da.

#### 51. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA  
GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

64. artikulua aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da idatzita:

“64. artikulua. Jarduerak etetea.

Bai organo substantiboak (ingurumen-inpaktuaren edo ingurumen-ukipenen ebaluazioen kasuan), bai ingurumenaren arloko eskumena duen departamentuak (ingurumen-baimen integratuen eta ingurumen-baimen bateratuen kasuetan) eta bai, hala izanez gero, toki entitateek (jarduera sailkatuen kasuan) agindua ematen ahalko dute

ingurumen esku-hartzearen menpe jarritako edozein proiektu, instalazio edo jarduera geldiarazteko –betiere prebentzio neurri gisa eta interesdunei entzun ondoren–, hori eraikitzen nahiz ustiatzen ari denean, osorik zein partzialki, honako arrazoi hauengatik:

Plan, proiektu, instalazio zein jarduerari ekin zaiolako ingurumen-baimen integraturik gabe, ingurumen-baimen bateraturik gabe, ingurumen adierazpen estrategikorik gabe, ingurumen-inpaktua adierazpenik edo ingurumen-ukipenen txostenik gabe, jarduera sailkaturako udal lizentziarik gabe edo erantzukizunpeko adierazpenik gabe.

b) Datuak ezkutatu, faltsutu edo maltzurki erabili direlako ingurumen arloko esku-hartzea egiteko prozeduran.

c) Plana, proiektua, instalazioa edo jarduera betearazteko ezarritako ingurumen-baldintzak ez-betetzea edo haustea”.

Zioak: Lehen legean jasota ez zegoen ingurumen-ukipenen txostena sartu da.

## 52. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA**

72. artikuluko 2. puntuko b) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Aurreikusitako ez-betetzea dokumentu bidezkoa baino ez denez, ez da arau-hauste astu- arnaren artean sartu behar, eta arau-hauste arinen artean dago jada (3c).

## 53. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA**

72. artikuluko 2. puntuko h) letra kentzeko zuzenketa.

## 54. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA**

72. artikuluko 3. puntuko d) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez da ezarri jakinarazteko eta erregistratzeko eskakizunari lotutako babes-arau gehigarriak, eta, beraz, arau-hauste horrek ez du zentzurik.

## 55. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA**

72. artikuluko 2. puntuko a) letra aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke:

“a) Nahitaezko ingurumen-baimen bateratua ez izanik, jardueran aritzea edo bertan edo instalazioetan funtsezko aldaketak egitea, betiere kalterik edo hondatze larriak eragin ez bada ingurumenean”.

Zioak: Kendu egiten da erantzukizunpeko adierazpenaren aipamena, artikuluko horretan ez dagoelako justifikatuta.

## 56. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA**

72. artikuluko 2. puntuko f) letra aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke:

“f) Foru lege honetan araututako prozedura eta bitarteko desberdinetan eskatzen den informazioa ezkutatu, aldatu edo faltsutzea”.

Zioak: Behar bezala idazten da osatu gabe zegoen puntua.

**57. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA  
GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

72. artikularen 3. puntuari f) letra gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“f) ingurumen-baimen bateratuaren edozein baldintza betetzen ez bada, ingurumenaren arloko eskumena duen departamentuari berehala ez jakinaraztea, barnean sartzan direlarik instalazioan gertatutako gorabeherak eta istripuak”.

Zioak: 2d arau-haustearen korrelatiboa da, zeinak testu bera bai baitu, baina ingurumenari nabarmen eragiten diotenean bakarrik aplikatzen da.

**58. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA  
GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

73. artikuluko 1.a puntuko a) letra aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke:

“a) 100.001 eurotik 1.000.000 eurorainoko isuna”.

Zioak: Ingurumen-baimen integratuaren zenbateko bera zuten mugak murriztu egin dira, funtzionamenduan irregulartasunak izateagatik ingurumen-kaltea izateko arrisku txikiagoa duten jarduerak direlako.

**59. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA  
ETA GEROA BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

73. artikuluko 1.b puntuko a) letra aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke:

“b) 15.001 eurotik 100.100 eurorainoko isuna”.

Zioak: Ingurumen-baimen integratuaren zenbateko bera zuten mugak murriztu egin dira, funtzionamenduan irregulartasunak izateagatik ingurumen-kaltea izateko arrisku txikiagoa duten jarduerak direlako.

**60. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA  
GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

73. artikuluko 1.c puntuko a) letra aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke:

“a) 15.000 eurorainoko isuna”.

Zioak: Ingurumen-baimen integratuaren zenbateko bera zuten mugak murriztu egin dira, funtzionamenduan irregulartasunak izateagatik ingurumen-kaltea izateko arrisku txikiagoa duten jarduerak direlako.

**61. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA  
GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

3. artikularen 73. puntua aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

“3. Isunaren zenbatekoa arau-haustea egiteagatik lortutako mozkin baina gutxiago denean, zehapena handitzen ahalko da, arau-hausleak ateratako mozkinaren zenbatekoaren hiru halako gehienez”.

Zioak: Elementu eredugarri gisa, hasierakoa baino balio handiagoa egokitzen jotzen bada.

**62. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA  
GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

2.a bis sekzioa gehitzeko zuzenketa. Hona testua:



#### “2.a bis sekzioa

Ingurumen-ukipenen txostena behar duten proiektuen arloko arau-hausteak eta zehapenak

XX. artikulua Ingurumen-ukipenen txostena behar duten jardueren arau-hausteak.

##### 1. Arau-hauste oso astunak honakoak dira:

a) Proiektu bat edo aldez aurretik gauzaturako proiektu baten aldaketa bat gauzatzeko, ingurumen-ukipenen nahitaezko txostenik gabe, betiere ingurumenari kalte edo narriadura larria eragin bazaio.

b) Hondatutako ingurumena lehengoratzeko eta berrezartzeko agintzen duten administrazio-ebazpenak ez betetzea.

##### 2. Arau-hauste astunak honako hauek dira:

a) Proiektu bat edo aldez aurretik gauzaturako proiektu baten aldaketa bat gauzatzeko, ingurumen-ukipenen nahitaezko txostenik gabe, betiere ingurumenari kalte edo narriadura larria eragin ez bazaio.

b) Datuak ezkatatu, faltsutu edo maltzurki erabili direlako ingurumen-ukipenak ebaluatzeko prozeduran.

c) Ingurumen-baldintzak edo ingurumen-ukipenen txostenean ezarritako neurri zuzentzaileak edo konpentsaziozkoak ez betetzea, baldin eta proiektua onartzen edo baimentzen duen ebazpenean jasota badaude, eta ingurumenean kalte edo narriadura larria eragin bada.

d) Hasitako zehapen prozedura baten ondorioz ezarritako behin-behineko eta kautelazko neurriek ekartzen dituzten betebeharrak ez betetzea.

e) Ingurumenari nabarmen eragiten dion edozein gorabehera edo istripuren berri berehala ez ematea ingurumenaren arloko eskumena duen departamentuari.

##### 3. Arau-hauste arinak honako hauek dira:

a) Ingurumen-baldintzak edo ingurumen-ukipenen txostenean ezarritako neurri zuzentzaileak edo konpentsaziozkoak ez betetzea, baldin eta proiektua onartzen edo baimentzen duen ebazpenean jasota badaude, eta ingurumenean kalte edo narriadura larria eragin ez bada.

b) Foru lege honetan zein horren arabera onetsitako arauetan ezarritako betebeharrak ez betetzea, arau-hauste astun zein oso astuntzat tipifikatuta ez badaude.

#### XX. artikulua Zehatzeko ahala.

Proiektuak baimentzeko eskumena duen organo substantiboak izango du zehatzeko ahala.

XX. artikulua Ingurumen-ukipenen txostena behar duten jardueren zehapenak.

1. Aurreko artikuluan tipifikaturako arau-haustek honako zehapen guztiak edo batzuk ekartzen ahalko dituzte:

a) Arau-hauste oso astunak direnean:

a) 100.001 eurotik 1.000.000 eurorainoko isuna.

b) Instalazioak behin betiko, erabat edo partzialki ixtea.

c) Instalazioak aldi batez, erabat edo partzialki ixtea, bi urtetik bost urtera bitarteko epe baterako.

d) Baimena kentzea edo bertan behera uztea, gutxienez urtebeterako eta gehienez 5 urterako.

e) Ezarritako zehapenak argitaratzea, egoki jotzen diren bitartekoak erabiliz, irmotzat jotzen badira administrazio bidean edo, hala denean, jurisdikzio bidean. Eta zehapenekin batera argitaratzea erantzule diren pertsona fisiko edo juridikoen izen-abizenak edo sozietate-izena, baita arau-hausteen mota eta izaera ere.

b) Arau-hauste astunak direnean:

a) 15.001 eurotik 100.000 eurorainoko isuna.

b) Instalazioak aldi batez, erabat edo partzialki ixtea, gehienez ere bi urtez:

c) Baimena kentzea edo bertan behera uztea, gehienez urtebetez.

d) Organo eskudunak beharrezkotzat jotzen dituen neurri osagarriak betetzeko behartzea, neurri horien helburua izanik ingurumen-baimen integratuaren baldintzak betetzen direla bermatzea, gorabehera edo istripu gehiago gerta ez daitezen.

c) Arau-hauste arinak direnean:

a) 15.000 eurorainoko isuna.

b) Instalazioak aldi batez, erabat edo partzialki ixtea, gehienez sei hilabetez.

2. Isunaren zenbatekoa arau-haustea egiteagatik lortutako mozkin baina gutxiago denean, zehapena handitzen ahalko da, arau-haustea ateratako mozkinaren zenbatekoaren hiru halako gehienez”.

Zioak: Ingurumen-ukipenen txostenari dagozkion arau-hausteen eta zehapenen araubidea jaso da.



**63. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA  
GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

74. artikuluko 2. puntuaren a) letra aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“a) Jarduera sailkatuaren lizentzia behar duten jarduerak abian jartzea, lizentzia hori eduki gabe”.

Zioak: Kendu egin da abian jartzeko erantzukizunpeko adierazpenaren erreferentzia, 3.c puntuan arautzen dena, eta 60. zuzenketa proposatzen da horretarako.

**64. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA  
GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

74. artikuluko 3. puntuaren c) letra aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“c) Jarduera sailkatuaren lizentzia behar duten jarduerak abian jartzea, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu gabe”.

Zioak: Idazketa aldatu da, puntuaren edukia argitzeko.

**65. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA  
GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

75. artikulua 1.a, 1.b eta 1.c puntuetako a) letra aldatzeko zuzenketa; hona hemen testua:

1.a. puntua.

“a. 75.001 eurotik 150.000 eurorainoko isuna”.

1.b. puntua.

“a) 30.001 eurotik 75.000 eurorainoko isuna”.

1.c. puntua.

“a) 30.000 eurorainoko isuna”.

Zioak: Arau-hausteetan sor daitekeen arazoa-ekin hobeki uztartzen diren kopuruak direla uste dugu.

**66. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA  
GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

75. artikuluko 2. puntua aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“2. Isunaren zenbatekoa arau-haustea egiteagatik lortutako mozkin baina txikiagoa denean, zehapena handituko da, arau-hausleak lortutako mozkinaren zenbatekoaren hiru halako gehienez”.

Zioak: Elementu eredugarri gisa, egokitzat jotzen da hasierakoa baino balio handiagoa izatea.

**67. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA  
GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

76. artikuluko epigrafeak aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“a) Arau-hauste oso astunak bost urteren buruan.

b) Arau-hauste astunak hiru urteren buruan.

c) Arau-hauste arinak urtebeteren buruan”.

Zioak: Arau-hausteetan sor daitekeen arazoa-ekin hobeki uztartzen diren kopuruak direla uste dugu.

**68. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA  
GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

76. artikuluko 2. puntuko epigrafeak aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

- a) Zehapen oso astunak bost urteren buruan.
- b) Zehapen astunak hiru urteren buruan.
- c) Zehapen arinak urtebeteren buruan”.

Zioak: Zehapenetan sor daitekeen arazoarekin hobeki uztartzen diren kopuruak direla uste dugu.

## 69. ZUZENKETA

### EH BILDU NAFARROA

#### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

76.1. artikulua ordezteko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“76. artikulua. Arau-hausteen eta zehapenen preskripzioa.

1. Arau-haustea honako epe hauetan preskribatuko dira:

- a) Arau-hauste oso astunak bost urteren buruan.
- b) Arau-hauste astunak hiru urteren buruan.
- c) Arau-hauste arinak urtebeteren buruan.

Arau-hausteen preskribatze-epa zenbatzen hasiko da arau-haustea egin den egunetik. Arau-hauste jarraitu edo etengabeen kasuan, jokabide arau-haustea bukatzearekin batera hasiko da epea zenbatzen”.

Zioak: Zuzena iruditzen zaigu arau-hausteen preskripzio-epa mantentzea, Ingurumena babes-teko esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legearen 71. artikulua jasotzen zuen bezala. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 30.1 artikuluan ezarritako epeak. Honela dio artikulua horrek: “Arau-hausteen eta zehapenen preskripzioari dagokionez, haiek ezarri dituzten legeak xedatuari begiratuko zaio. Lege horiek preskripzio-epa finkatzen ez badute, arau-hauste oso astunaren preskripzioa hiru urtera izango da; arau-hauste astunena, bi urtera, eta arau-hauste arinena, sei hilabetera. Falta oso astunengatik ezarritako zehapenen preskripzioa hiru urtera izango da; falta astunengatik ezarritako zehapenena, bi urtera, eta falta arinengatik ezarritakoena, urtebetera”.

## 70. ZUZENKETA

### NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

77. artikuluko 3. puntua kentzeko zuzenketa. Hona testua:

Zioak: Ez da egokitzat jotzen neurri gehigarrien instalazioa alde aurretik hautemandako arau-hausteetarako zehapenen mailaketarekin nahastea.

## 71. ZUZENKETA

### EH BILDU NAFARROA

#### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

77. artikuluko 1. apartatuaren d) letra ordezteko zuzenketa. Honela idatzita geratuko da:

“d) Ingurumenari zein pertsonen osasunari eragindako kalteak, edo haien segurtasunerako sortutako arriskua”.

Zioak: Kontuan hartuta diruzko zehapenen artean dagoen aukera zabala, ez gatoz bat zehapenen mailaketa baloratzeko orduan kanpoan uztearekin, adibidez, pertsonen eragindako kalteak edo segurtasunerako sortutako arriskua, Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legean jasotzen zen bezala.

## 72. ZUZENKETA

### EH BILDU NAFARROA

#### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

81. artikulua ordezteko zuzenketa. Hauxe izanen litzateke testu berria:

“81. artikulua. Ingurumen arloko ordezeko zerbitzua.

Behin zehapen prozedura hasita, arau-hauste astun eta arinen kasuan, ustezko erantzulea den pertsona aukera izanen du, isun gisako zehapenen ordeza, ingurumenari onura ekarriko dion ingurumen arloko lehengoratzeko, kontserbazio edo hobekuntza zerbitzu bat egitea eskatzeko, zehapena jartzeko eskumena duen organoak ezartzen dituen baldintza eta moduekin.

Halaber, zehapen prozedura amaitu ondoren, bidezko izanen da eskatzea isun-zehapenen

ordez ingurumen arloko zerbitzu bat egiteko auke-  
ra, baina hori eskatu ahalko da soilik zehapena  
arau-hauste astun edo arin batengatik izan bada”.

Zioak: Gure ustez, arau-hauste edo zehapen  
oso astunen kasuan, ez litzateke aplikatu behar  
ordezko ingurumen-prestazioa, hain zuzen ere  
arau-hauste horiek dakartzaten jokabideen larrita-  
sunagatik eta dagozkien isunengatik.

### 73. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA  
GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

1. artikulua 85. puntua aldatzeko zuzenke-  
ta. Testua honela geldituko da:

“1. Arau-hausteak gertatzen badira ingurumen  
ondorioen edo ingurumen-inpaktuaren adierazpe-  
na, ingurumen-baimen integratua edo ingurumen-  
baimen bateratua eta ingurumen-ukipenen  
txostena behar duten jarduera edo instalazioekin  
loturik, Nafarroako Foru Komunitateko Administra-  
zioak izanen du zehatzeko ahalmena”.

Zioak: Lehen legean jasota ez zegoen inguru-  
men-ukipenen txostena sartu da.

### 74. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA  
GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

86. artikulua 1.a b eta c puntuak aldatzeko  
zuzenketa. Testuak honela geldituko dira:

“a) Organo substantiboaren edo ingurumen-  
organoaren zuzendaritza nagusia duen pertsonari,  
dagokionaren arabera, arau-hauste arinak edo  
astunak direnean.

b) Organo substantiboaren edo ingurumen-  
organoaren departamentuko titularrari, dagokiona-  
ren arabera, arau-hauste oso astunak direnean.

Dena dela, 600.000 eurotik gorako isuna  
dakarten arau-hauste oso astunak direnean, esku-  
mena Nafarroako Gobernuarena izanen da”.

Zioak: Zehatzeko eskumena argitzen da, bai  
eta organo substantiboaren eskumena ere, arau-

hausteak lehenago legean jasotzen ez zen inguru-  
men-ukipenen ebaluazioari buruzkoak direnean.

### 75. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA  
GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

Xedapen gehigarri bat, lehenengoa bis, gehi-  
tzeko zuzenketa. Hona testua:

“Lehenengoa bis xedapen gehigarria. Nafarroa-  
ko airearen kalitatearen sareari eusten laguntzea.

Atalase kuantitatibo jakin batzuk gaindituz  
atmosferako kutsatzaileen isuriak egiten dituzten  
industria-instalazioek Nafarroako airearen kalita-  
tea kontrolatzeko sareari eusten lagundu beharko  
dute, beren isuriek Nafarroa osoko isuriek alde-  
ratuta duten garrantziarekiko proportzioan.  
Lankidetzarako atalaseak eta formulak erregela-  
mendu bidez zehatzuko dira”.

Zioak: Gaur egun, instalazio jakin batzuek bai-  
menaren baldintzen artean dute inguruko airearen  
kalitatea kontrolatzeko sare bat ezartzea, eta  
haien estazioak Nafarroako airearen kalitatea  
kontrolatzeko sarean sartuta daude. Beste instala-  
zio batzuek ez dute betebeharrak hori, kutsatzaile-  
ren batentzat antzeko isuriak edo isuri handiagoak  
izan arren. Proposamen horren bidez, zenbait ata-  
lase gainditzen dituzten inplikaturako instalazio  
guztiekiko lankidetzara modu bidezkoan sistemati-  
zatuko litzateke. Uste da horrek hamarnaka insta-  
lazio iraginen liekeela, atmosferara isuri poten-  
tzial handienak egiten dituztenei.

### 76. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA  
GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

Bigarren xedapen gehigarriaren lehenengo  
paragrafoa aldatzeko zuzenketa. Testua honela  
geldituko da:

“Bigarren xedapen gehigarria. Udal-mugarte  
bat baino gehiago ukitzen dituzten jarduerak eta  
proiektuak eta Nafarroako mugetatik kanpo koka-  
tuta daudenak.

Nafarroako Foru Komunitatearen mugakide diren edo udalerrri bat baino gehiago dituzten autonomia-erkidegoen lurraldearen zati bat hartzen duen lurralde-ezarpena aurreikusten duten jarduerak eta/edo proiektuek kasuan kasuko baimenak edo lizentziak lortu beharko dituzte ukitutako entitate bakoitzetik, salbu eta administrazio eskudunen artean nahitaezko administrazio-izapidetzea sinplifikatzeko akordiorik badago”.

Zioak: Argiago idatzita geratzen da.

## 77. ZUZENKETA

### **NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA**

Laugarren bis xedapen gehigarria gehitzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko da:

“Laugarren bis xedapen gehigarria. Uztailaren 26ko 1/2019 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 117. eta 118. artikulua aldatzea”. Honela geratuko dira idatzita:

«117. artikulua. Lurzoru urbanizaezinean jarduera baimengarriak baimentzeko prozedura.

1. Lurzoru urbanizaezinean jarduera eta erabilerak baimengarriak baimenak emateko, honako prozedura honi jarraituko zaio:

a) Sustatzaileak kasuko eskaria aurkeztuko dio jarduera ezarriko edo garatuko den esparruko udal eskudunari; harekin batera, foru lege honen 119. artikuluan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko du.

b) Udalak espedienteari aurkeztutako eskariari buruzko txostena gehituko dio, non adieraziko baitu ea bat datorren udalaren hirigintza-planeamenduekin, dauden edo/eta aurreikusita dauden hirigintza-zerbitzuak nahikoak diren eta Udal horretan dauden aurrekari administratiboak zein diren. Espedientea lurraldearen antolamenduen eta hirigintzaren arloko departamentu eskudunari igorriko dio eskaria aurkeztu eta bi hilabeteko epean. Epe hori pasatu eta oraindik ez bazaio aipatu departamentuari dokumentazioa bidali, interesatuak zilegi izanen du baimena zuzenean eskatzea aipatutako departamentuan.

c) Lurraldearen antolamenduen eta hirigintzaren arloan eskumena duen departamentuko

titularrak ebatziko du eskatutako erabilera edo jarduera baimentzeari edo debekatzeari buruz, eta ebazpen hori udalari eta sustatzaileari igorriko die, eta, hala behar bada, baita kontzejuari ere, horren lurra ukitzen baditu. Baimena emateko ebazpenean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio departamentuen eskumenekoak diren ukipen sektorialen balorazioa jaso beharko da, eta behar diren neurri zuzentzaileak ezartzen ahalko dira. Bi hilabete igarotzen badira lurralde antolamenduen eta hirigintzaren arloko departamentu eskudunak udalari inongo egintzarik jakinarazi gabe, ulertuko da baimena ukatu egin dela.

2. Baimenak dimentsioen eta beharrezkoen arteko proportzionaltasunaren irizpidearen arabera emanen dira, eta aztertu beharko da, halaber, proposatutako eraikuntzaren tipologia egokia den garatu nahi den jarduerarako.

3. Jarduketa exekutatuzeko behar diren udal lizentziak edo haiek abian jartzekoak soilik ematen ahalko dira baimena eskuratu ondoren. Lizentzia horietan, bidezkoak diren beste batzuen artean, aipatutako baimenean finkatutako determinazioak jasoko dira, izan ere, determinazio horiek betetzea eta betearaztea begiratu dute.

4. Jardueraren exekuzioa edo abian jartzea baimena ematen denetik bi urteko epean gauzatu beharko da gehienez ere; epe hori amaituta, automatikoki agortuko dira baimenaren ondorioak, eta eraginkortasunik gabe geldituko da. Baimendutako jarduera uzteak berarekin ekarriko du jardueraren titularrak ukitutako lurra lehengoratu beharra, gehienez ere 5 urteko epean, eraikuntzak eraitsiz eta/edo kenduz».

«118. artikulua. Prozedura berezia.

1. 117. artikuluko 1. puntuko a) eta b) apartatuetan aurreikusitakoa ez da aplikatuko honako kasu hauetan:

a) Jarduerak edo erabilerak hainbat udal-mugarteri eragiten dienean, eskaera zuzenean aurkeztu beharko zaio lurraldearen antolamenduen eta hirigintzaren arloan eskumena duen departamentuari, zeinak ukitutako udalei jakinaraziko baitie.

b) Jarduerak edo erabilerak ingurumen-baimena behar duenean, eta baimen hori ematea ingurumenaren arloan eskumena duen departamentuari dagokionean; kasu horretan, ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen foru legean aurreikusitako prozedura aplikatuko da.

c) Jarduera edo erabilera b) apartatuan sartuta ez dagoenean eta energiaren eta meategien arloan eskumena duen departamentuaren baimena

behar duenean, departamentu horrek lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloan eskumena duen departamentuari helaraziko dio dokumentazio guztia, lurzoru urbanizaezinean baimengarriak diren jarduerak baimentzeko espedienteak izapidetu dezan. Energiaren eta meategietan eskumena duen departamentuak ebazpena eman ahal izateko, lurzoru urbanizaezinean baimengarriak diren jarduerak egiteko baimena eman beharko du.

2. Aurreko puntuan aipatutako kasuetan, lurralde-antolamenduaren eta hirigintzaren arloan eskumena duen departamentuak 117.1.b) artikuluan aurreikusitako txostena eskatu beharko die ukitutako udalei, Lurzoru urbanizaezinean baimengarriak diren jarduerak baimentzeko espedienteak ebatzi aurretik.

3. Jarduketak eta erabilerak udalez gaindiko plan edo proiektu sektorial baten xede diren kasuetan, ez da beharrezkoa izanen lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloko departamentu eskudunaren baimena, salbu eta legedi sektorialean edo lurraldea antolatzeke tresnan bertan berriaz eskatzen bada.

4. Lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloko departamentu eskuduna eskudunak, toki entitateak eskatuta, ahalmena eman ahalko du aurreko artikuluan aurreikusitako baimenak emateko, betiere finkatzen diren jarraibideei jarraituz. Nolanahi ere, baimen horiek atzera bota ahal izanen dira».

Zioak: Ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen foru lege berriaren aurreikuspenekin bat, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bateginak araututako lurzoru urbanizaezinean jarduerak egiteko baimenak ingurumenaren arloan eskumena duen sailak emandako ingurumen-baimenetan txertatuko dira (ingurumen-baimen Integratua eta ingurumen-baimen Bateratua). Ez da gauza bera gertatuko ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen Foru Legean aurreikusitako gainerrako esku-hartze moduekin (ingurumen-ebaluazio estrategikoa, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa eta ingurumen-ukipenaren ebaluazioa); horietan, ingurumen-organoak, organo substantiboak eskatuta, bere gogoetak igorriko ditu, organo substantiboak emandako baimenean txertatzeko. Horren ondorioz, azken kasu horietan, lurzoru urbanizaezinean jarduerak baimentzea organo substantiboaren eta ingurumen-organoaren aurreko izapidetzetik kanpo geratzen da, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 117. artikuluen arabera izapidetuko bailirateke. Horregatik ikusten da

beharrezkoa dela organo substantiboetatik, ingurumenetik eta hirigintzaketik datozen inplikaturako administrazio-izapide guztiak biltzea. Azken batean, kontua da administrazio-eraginkortasuna hobetzea, inplikaturako administrazio-unitateen eskumenean banaketa aldatu gabe, haien arteko komunikazio eta koordinazio hobea lortzeko mekanismoak ezartzen baititu. Eta, aldi berean, balio du herritarrei beharrezko izapideak errazteko lurzoru urbanizaezinean ezarri beharreko jarduerak garatzeko.

Izapidetzen diren lurzoru urbanizaezineko jarduerak baimentzeko espedienteetan, organo substantiboa identifikatzeari dagokionez, ingurumenaren arloan eskumena duen departamentuaz gain, energiaren eta meategien arloan eskumena duen departamentua identifikatu da.

117. artikuluko 1.a) apartatua aldatzea eta 5) apartatua kentzea proposatzen da, Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legeari egindako aipamen oro ezabatzeko, zeina indargabetuta geratuko baita ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen foru lege berriaren bidez.

## 78. ZUZENKETA

### NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

Bosgarren xedapen gehigarrian ("Erregelamendu bidez garatzea") paragrafo bat gehitzeko zuzenketa, honako testu honekin:

“Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege honen eranskinak aldatzeko, erkidegoko eta/edo estatuko araudiak, hala badagokio, egiten dituen aldaketetara egokitzeko”.

Zioak: Egokitzapen-klausula, oinarritzko araudian aldaketak egin direlako, Nafarroan transposizioa azkar egin dadin.

## 79. ZUZENKETA

### EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen iragankorra ordeztzeko zuzenketa. Hauxe izanen litzateke testu berria:

“Bigarren xedapen iragankorra. Pertsonen segurtasunerako eta osotasunerako arriskutsuak



diren eta babes zibilaren arloko eskumena duen departamentuaren txostena behar duten jarduerak.

Pertsonen segurtasunerako arriskutsuak diren jarduerak erregelamendu bidez zehaztu arte, indarrean jarraituko du Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legea garatzen duen Erregelamenduaren –abenduaren 28ko 93/2006 Foru Dekretuaren bidez onetsitakoaren– IV. eranskinak.

Halaber, aurreko apartatuan aipatutako araugarapena egin arte, pertsonen segurtasunerako arriskutsuak diren eta ingurumen-baimen integratua edo ingurumen-baimen bateratua behar ez duten jarduerak jarduera sailkaturako lizentzia beharko dute”.

Zioak: Ingurumena babesteko esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legea indargabetzen denez, pertsonen segurtasunean eragina duten jardueri buruzko txostena egiteko arau-esparrurik gabe geratzen zen Babes Zibila Foru legearen aurreproiektua idaztearen ondorioa zen hori, baina xedapen iragankor honi emandako idazketarekin ez da arazoa konpontzen.

Lege-proiektuaren osotasunean, kontzeptuakats handi bat antzeman da. Jarduera sailkatuak prozedura integratzaile baten bidez izapidetu izan dira (Osasuna, Babes Zibila eta Ingurumena), eta prozedura hori esku hartzen duten guztiek, toki-erakundeek eta partikularrek luzaroan hartu izan dute beren gain aurreko araudi guztietan (Jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arrisku-suen Erregelamendua/1961, 16/1986 FL) eta egun indarrean dagoen Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko 4/2005 Foru Legean. Eta ez da kasualitatea, pertsonak babestea ere ingurumen-legearen helburu bat baita; izan ere, zaratak, bibrazioak eta abar mugatzen ditu, eta horiek eragin kaltegarria izan dezakete haien osasunean.

Orain antzematen duguna da lege-proiektu honek prozedura hori desegin nahi duela, zioen azalpenean aipatutako administrazioa sinplifikatzeko helburua urratuz.

Garrantzitsua da azpimarratzea xedapen iragankor horren idazketak, "Babes zibilaren arloko eskumena duen departamentuak pertsonen segurtasunerako arriskutsuak diren jardueretan esku hartzeko arau-esparrua garatu arte (...)", Babes Zibila, aldebakarrez, partekatutako lege berri batetik (Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko 4/2005 Foru Legea) ateratzen duela, eta lehen aldiz eskatzen duela bere arau-esparrua garatzeko.

## 80. ZUZENKETA

### **NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA**

Xedapen iragankor bat, hirugarrena, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

"Hirugarren xedapen iragankorra. Egun dauden instalazioak

Foru lege honek indarra hartzen duenean ingurumen-baimen Integratua edo Jarduera Sailkatuaren Lizentzia duten eta 1. eranskinean sartuta dauden instalazioek ingurumen-baimen Bateratuari buruzko foru lege honetan ezarritakoa bete beharko dute.

Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren titularraren ebazpenaren bidez, ingurumen-baimen bateraturako ezarritako araubideari atxikitzen zaizkion instalazioak identifikatuko dira”.

Zioak: Gaur egun dauden instalazioetarako trantsizio-formula ezartzen da.

## 81. ZUZENKETA

### **NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA**

Xedapen indargabetzaile bakarraren 2. puntua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

"2. Halaber, indargabetu egiten da ekainaren 8ko 135/1989 Foru Dekretua, zaratak edo bibrazioak eragiten dituzten jarduerak bete beharreko baldintza teknikoak ezartzen dituena, III. kapitulua izan ezik (Proiektuen edukiak), horrek indarrean jarraituko baitu bertan jasotako alderdiak arautzen dituen araudi berria onartu arte. Estatuko legeriak zehaztuko du zarataren arloan aplikatzekoa den araubide juridikoa.

Zioak: Zaratari buruzko azaroaren 17ko 3712003 Legearen aldarrikapenak, arlo horretako Europako Zuzentarauaren transposizioa egin zuena, eta, bereziki, lege hori zonakatze akustikolari, kalitate-helburuei eta emisio akustikoei dago-kienzegaritzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuak, berekin ekarri zuten, Nafarroan jada aplikagarria zen araudi bat ezartzea, oinarritzeko.

ko izaera bai baitzuen, zeinak, neurri batean, 135/89 Foru Dekretuak ezarritakoarekin talka egiten baitzuen, foru dekretu hori arlo horretan arau bat ezartzen aitzindaria izan baitzen. Argitzeko arrazoiak direla eta, hura indargabetzea egokitzat jotzen da, III. kapituluaren ezarritakoa izan ezik, erabat indarrean baitago eta ez baitu talka egiten errege-dekretuan ezarritakoarekin.

## 82. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA**

Azken xedapen bakarra aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen denetik sei hilabetera”.

Zioak: Foru legeak indarra hartzeko epe hori beharrezkoa da legea foru dekretu bidez garatzeko erregelamendua idatzi eta onetsi behar delako

## 83. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA**

“Jarduera jarraiturik ez duten proiektuak, instalazioak, jarduketak eta jarduerak, ingurumen-baimen bateratua prozedura erraztuaren bidez eskuratu behar dutenak" izeneko 1. eranskinaren izenburua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko da:

“2. eranskina. Ingurumen-ukipenen txostena eskuratu behar duten proiektu, instalazio, jarduketa eta jarduerak”.

Zioak: Artikuluak alde aurretik aldatzearen ondoriozko aldaketa.

## 84. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA**

“Jarduera jarraiturik ez duten proiektuak, instalazioak, jarduketak eta jarduerak, ingurumen-baimen bateratua prozedura erraztuaren bidez eskuratu behar dutenak" izeneko 1. eranskina aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko da:

1. eranskina. Jarduera jarraiturik ez duten proiektuak, instalazioak, jarduketak eta jarduerak, ingurumen baimen bateratua prozedura erraztuaren bidez eskuratu behar dutenak.

A) Lurzatiak berrantolatzeke proiektuak, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar ez dutenak eta 10 hektareatik gorako azalera ukitzen dutenak.

B) Nekazaritzarako ura kudeatzeko egitasmo hauek:

a. 10 hektareatik gorako azalera urreztatzeke aldatzeko eta hobetzeko proiektuak, ingurumen-inpaktuaren ebaluaziorik egin behar ez dutenak.

b. Ureztapena eraldatzeko proiektuak, ingurumen-inpaktuaren ebaluaziorik behar ez dutenean.

C) Bide eta pista berriak egitea, iraunkorrak eta 100 metro lineal baino luzeagoak direnak.

D) Errepideak zabaldu eta hobetzeko proiektuak, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar ez dutenak.

E) Energiari buruzko instalazioak.

a. kV-etik gorako potentzial-diferentzia duten linea elektrikoak eta transformazio azpiestazioak, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar ez dutenak.

b. Oliobideak eta gasbideak, 100 metro baino luzeagoak eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar ez dutenak.

c. Eguzki-energiaren aprobetxamendurako instalazioak, eraikinen estalki edo teilatuetatik kanpo daudenak eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar ez dutenak.

d. Haize-sorgailuak multzoka edo banaka instalatzeko proiektuak, guztira 10 kW-etik gorako potentzia dutenak eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar ez dutenak.

F) Komunikazioko instalazioak.

- a. Telekomunikazioen banaketa-sareak.
- b. Telebista eta irrati hedapeneko errepikagailuak.
- c. Antena meteorologikoak eta baliabide eolikoak neurtzekoak.
- d. Telekomunikazio-antenak eta horiei loturiko azpiegiturak.

G) Hornidurarako eta saneamendurako hodiak, 100 metro baino luzeagoak eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar ez dutenak.

H) Aire zabaleko meategiak, obra publiko bati lotuak eta hari bakarrik zerbitzu ematen diotenak, baldin eta obra horren ingurumen arloko tramitazioan ebaluatu ez badira.

I) Gune degradatuak leheneratzeko proiektuak, ez badira sartu, ingurumenari begira, degradazio hori eragin duten proiektu baimenduetan.

Zioak: Proiektu moten sailkapen murriztagoa ezarri da, horiek baitira benetan eragin garrantzitsua izan dezaketenak, inpaktu txikia izan dezaketen proiektuen aurreko zerrendaren aldean, horietarako ez baita planteatzen ingurumen-arloko esku-hartzerik.

## 85. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA**

“Ingurumen-baimen bateratua behar duten proiektuak, instalazioak, jarduketak eta jarduerak” izeneko 2. eranskinaren izenburua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko da:

“1. eranskina. Ingurumen-baimen bateratua behar duten proiektuak, instalazioak, jarduketak eta jarduerak”.

Zioak: Artikuluak aldeztu aurretik aldatzearen ondoriozko aldaketa.

## 86. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA**

2. eranskinaren 2. epigrafea aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

“Industria batean dauden galdarak, lurrun-sorgailuak eta errekontzako beste edozein instalazio, salbu eta elektrizitatea sortzeko edo kogeneraziorako instalazioak, jarduera nagusia hori izan nahiz ez izan, eta potentzia termiko izendatua 5 MW-etik gorakoa eta 50 MW-etik beherakoa dutenak”.

Zioak: Beheko atalase berria, 5 MW-koa, abenduaren 22ko 1042/2017 Errege Dekretuan ezarritakoa da. Errege-dekretu horrek errekontza-instalazio ertainetatik datozen agente kutsatzaile jakin batzuen atmosferarako isuriak mugatzen ditu, eta airearen kalitateari eta atmosfera babes-teari buruzko azaroaren 15eko 34/2007 Legearen IV. eranskina eguneratzen du.

## 87. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA**

2. eranskinaren 4.3 epigrafea aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

“Prozesu kimiko edo biologikorik gabe farmazia-produktuak fabrikatzea”.

Zioak: Disolbatzaile organikoaren kontsumoaren lehen aipaturako atalaseak (200 t/urtea edo hortik behera) ez du garrantzi teknikorik, benetako proiektuen esperientzia ikusita.

**88. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA  
GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

2. eranskinaren 5.1 epigrafea aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

“Hondakinen balorizaziora eta/edo ezabaketara bideraturiko instalazioak, ingurumen baimen integratua behar ez dutenak estatuko oinarrizko araudiari jarraikiz, honako hauek salbu:

a) Konposta eskalan egiteko instalazioak.

b) Arriskutsuak ez diren hondakinen balorizaziorako instalazioak, beste kategorietan sarturik ez daudenak eta urteko tratamendu ahalmena 50 t baino txikiagoa denean”.

Zioak: A) eta b) azpiepigrafeak eranskinako 5.2 eta 5.3 epigrafe berri gisa agertzen dira akats baten ondorioz.

**89. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA  
GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

2. eranskinako 5.2 eta 5.3 epigrafeak kentzeko zuzenketa.

Zioak: 5.2 eta 5.3 epigrafeak oker batengatik agertzen dira. Aurreko zuzenketaren osagarria da hau.

**90. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA  
GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

16.6 epigrafea kentzeko zuzenketa.

Zioak: 16.5 epigrafearen errepikapena da.

**91. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA  
GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

3. eranskinaren 1 epigrafea aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

Industria batean dauden galdarak, lurrun-sorgailuak eta errekontzako beste edozein instalazio, salbu eta elektrizitatea sortzeko edo kogeneraziorako instalazioak, jarduera nagusia hori izan nahiz ez izan, eta potentzia termiko izendatua 5 MW-koa edo txikiagoa eta 250 kW-koa edo handiagoa dutenak.

Zioak: Goiko atalase berria, 5 MW-koa, abenduaren 22ko 1042/2017 Errege Dekretuan ezarritakoa da. Errege-dekretu horrek errekontza-instalazio ertainetatik datozen agente kutsatzaile jakin batzuen atmosferarako isuriak mugatzen ditu, eta airearen kalitateari eta atmosfera babes-teari buruzko azaroaren 15eko 34/2007 Legearen IV. eranskina eguneratzen du.

## Foru Lege proiektua, Nafarroako Turismoari buruzko otsailaren 14ko 7/2003 Foru Legea aldatzekoa.

### AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen Nafarroako Turismoari buruzko otsailaren 14ko 7/2003 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketa. Proiektu hori 2020ko abuztuaren 21eko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### 1. ZUZENKETA

#### EH BILDU NAFARROA

#### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Artikulu bakarrari gehikuntza egiteko zuzenketa.

Bat bis. Turismoari buruzko otsailaren 14ko 7/2003 Foru Legeko 3. artikuluko e) eta g) apartatuak aldatzen dira. Horien testua horrela geldituko litzateke:

3. artikulua. Helburuak.

e) Turismo-jarduera halako moldez antolatzea non turismo-kudeaketa jasangarrirako eredu bat bermatuko baita, xede harturik turismo-baliabideen, ingurumen eta paisaiaren eta gure kulturaren zaintza eta mantentzea.

g) Turismo-baliabideak babestu, indartu eta zaintzea, haien endekapen edo suntsipena ekidinez, erabilera egoki eta proportzioskoa bermatuz, haien iraupena eta mantentzea bermatuko duena.

Zioak: 3. artikulua testua aldatu da, legezko betebehartzat ezartze aldera turismo-baliabideak, ingurumena, paisaia eta gure kultura zaindu eta mantentzea. Halatan, administrazio publiko desberdinek helburu hori erdiesteko beharrezkoak diren neurriak hartu ahalko eta beharko dituzte.

### 2. ZUZENKETA

#### EH BILDU NAFARROA

#### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Artikulu bakarrari gehikuntza egiteko zuzenketa.

Bat ter. Turismoari buruzko otsailaren 14ko 7/2003 Foru Legeko 4. artikuluko b) apartatua aldatzen da. Horren testua honela idatzita geldituko litzateke:

4. artikulua. Printzipioak.

“(…)

b) Administrazio publiko ezberdinen, haien erakundeen, administrazio-organoen, turismo partzuegoen eta Turismo-guneak Kudeatzeko Unitateen arteko harremanak koordinazio-, lankidetzeta eta kooperazio-printzipioen arabera antolatuko dira.

Zioak: 4. artikulua b) apartatua aldatzen da, Turismo-guneak Kudeatzeko Unitateak barne hartzeko.

### 3. ZUZENKETA

#### EH BILDU NAFARROA

#### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Artikulu bakarrari gehikuntza egiteko zuzenketa.

Bat quater. Turismoari buruzko otsailaren 14ko 7/2003 Foru Legeko 5. artikuluko 1. apartatuko c), i) eta k) letrak eta 2. apartatua aldatzen dira. Horien testua horrela geldituko litzateke:

5. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eskumenak.

“(…)

e) Turismo-jarduera Foru Komunitatearen esparruan planifikatu, antolatu eta sustatzea, turismo-kudeaketa jasangarrirako eredu bat bermatuz, xede harturik turismo-baliabide, ingurumen, paisaia eta kulturaren zaintza eta mantentzea.

i) Turismo-arloko baliabideak sortu eta kudeatzea, bai eta turismo-sektoreari buruzko estatistikak egitea ere, Nafarroako Turismo Behatokiaren bitartez.

k) Nafarroako Turismo Bulegoen Sare Publikoa sortzea.

(. . .)

2. apartatua. Aurreko eskumenak egikaritzean, Foru Komunitateko Administrazioak ahalbi-



detuko ditu, beharrezkoak direnean, Estatuko Administrazio Orokorrarekiko koordinazioa eta bat-etortzea, bai eta beste toki entitate, autonomia erkidego eta eskualde mugakide batzuekikoak ere.

Zioak: 5. artikulua c) apartatua aldatzen da, kudeaketa jasangarriaren eredu bat bermatzeko, natur baliabideak zaindu eta mantenduko dituen.

i) apartatua aldatzen da Nafarroako Turismo Behatokia barne hartzeko, indartu beharrekoa den organo bat izaki.

k) letra bat gehitzen da, turismo-bulegoen sare publiko baten sorrera barne hartzeko, indartu eta garatu behar dugun zerbitzu publiko bat izaki.

Bigarren apartatua beste eskualde mugakide batzuk sartzen dira, mugaz haraindiko eskualdeekin eta erkidego mugakideekin lan egitearen garrantzia kontuan harturik.

#### 4. ZUZENKETA

##### EH BILDU NAFARROA

###### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Artikulu bakarrari gehikuntza egiteko zuzenketa.

Bat quinquies. Turismoari buruzko otsailaren 14ko 7/2003 Foru Legeko 8. artikuluko 3. apartatua aldatzen da. Horren testua honela idatzita geldituko litzateke:

“3. Eskumen horiek egikaritzeko, turismo alorrean eskudun den departamentuak honako organo eta ente hauek izanen ditu:

- a) Turismoko Mahai Sektoriala.
- b) Turismoko Departamentuarterko Batzordea.
- c) Turismo Partzuergoak.
- d) Turismo-guneak Kudeatzeko Unitateak”.

Zioak: Proposatzen da Nafarroako Turismo Kontseilua Turismoko Mahai Sektorialaren bidez ordeztzea, kideak eta eskumenak 9. artikulurako proposaturiko aldaketaren arabera gehituz, eta Turismo-guneak Kudeatzeko Unitateak barne hartzea, 11. bis artikulurako planteaturiko aldaketaren arabera.

#### 5. ZUZENKETA

##### EH BILDU NAFARROA

###### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Artikulu bakarrari gehikuntza egiteko zuzenketa.

Bat sexies. Turismoari buruzko otsailaren 14ko 7/2003 Foru Legeko 9. artikulua aldatzen da. Horren testua honela idatzita geldituko litzateke:

“9. artikulua. Nafarroako Turismoko Mahai Sektoriala.

1. Foru Komunitateko Administrazioari turismo-alorrean aholku ematea, eta, onetsia izan aurretik, argibideak eman beharko ditu Nafarroako Gobernu departamentu eskudunak prestatuturiko urteroko turismoko ekintza-planari buruz.

(...)

3. apartatua. Nafarroako Turismo Kontseiluko lehendakari izanen da turismo alorrean eskudun den departamentuaren ordezkari bat, eta bertan ordezkaturata egonen dira Udallerri eta Kontzejuen Federazioa, Turismo Partzuergoak, turismo-enpresen elkarteak, Turismo-guneak Kudeatzeko Unitateak eta garapen-agentziak”.

Zioak: Nafarroako Turismo Kontseilua Nafarroako Mahai Sektorialarekin ordeztzen da, horri eskumenak eta kideak gehituz, turismoko eragileekiko harreman erregular eta zuzeneko indartzearen eta haien proposamen eta iritziak ezagutzearren.

#### 6. ZUZENKETA

##### EH BILDU NAFARROA

###### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Artikulu bakarrari gehikuntza egiteko zuzenketa.

Bat septies. Turismoari buruzko otsailaren 14ko 7/2003 Foru Legeko 11. bis artikulua berria gehitzen da. Horren testua honela idatzita geldituko litzateke:

“11.bis artikulua. Turismo-guneak Kudeatzeko Unitateak”.

1. Turismo-guneak Kudeatzeko Unitateak udalerriz gaindiko baliabide bat dira, Foru Komunitatean turismo alorreko eskumena duen departamentuak kudeatuak.

2. Turismo-guneak Kudeatzeko Unitateei dagozkie honako eginkizun hauek:

I. Lankidetzan aritzea eskualde-mailako turismo-gunearen antolaketa ahalik onena izan dadin,

turismo-baliabideak eta hobetze- nahiz egokitze-ekintzak identifikatuz.

II. Turismoko azpiegitura eta ekipamenduak hobetu edo handitzeko premiak identifikatzea.

III. Baliabideei eta establezimendu-eskaintzari buruzko informazioa gaurkotzea eta hobetzea.

IV. Arau-urraketak gertatzen diren egoerak identifikatzea eta horien berri ematea ikuskapen-zerbitzuei.

V. Lurraldeko baliabideen aprobe-txamenduarekin zerikusia duten jardueren presta-ketan laguntzea.

VI. Beren lurraldeko establezimenduen gaita-sunak eta lanbide-prestakuntza hobetzen lagun-tzea.

VII. Turismo Behatokiarekin lankidetzan ari-tzea, turista-jarioari, erabilera-jokabideei eta turis-taren asebetetasunari buruzko informazioa bilduz.

VIII. Turismo-guneak Kudeatzeko Unitatearen baliabidea eta turismo-produktuak merkaturatzen eta nazioartekotzen laguntzea”.

Zioak: Legean sartzan da Turismo-guneak Kudeatzeko Unitatea, Turismoko 2017-2025 Plan Estrategikoan jasota zegoena lurraldeetan turis-mo-kudeaketako egiturak arrazionalizatzeko, gobernantza-eredu berri bat sortuz.

## 7. ZUZENKETA

### EH BILDU NAFARROA

#### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Artikulu bakarrari gehikuntza egiteko zuzenke-ta.

Hiru bis. Turismoari buruzko otsailaren 14ko 7/2003 Foru Legeko 13. bis artikulua aldatzen da, 7. apartatua gehituz. Horren testua honela idatzita geldituko litzateke:

“13 bis artikulua. Hautazko alde aurreko kon-sulta, turismo-araudiarekiko egokitzapenari buruzkoa, eta turismo-aholkularitza.

“(…)

7. apartatua. Turismo alorrean eskudun den departamentuak aholkularitza tekniko-turistikoa eskainiko die establezimendu bat turismo-erabile-rarako edo turismo-jarduera bat gauzatzeko xedez eraiki edo birmoldatzeko proiektua daukaten per-sona fisiko edo juridikoei”.

Zioak: Aholkularitza tekniko ez ezik turistikoa ere entitate publikoei nahiz pribatuei eskain-tzearen aukera ematea.

## 8. ZUZENKETA

### NAVARRA SUMA

#### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Artikulu bakarreko laugarren apartatua alda-tzeko zuzenketa, zeinaren bidez 13. bis artikulua berria gehitzen baita.

4. apartatuak testu hau izanen du:

“4. Kontsulta hori loteslea izanen da, eta behin betiko sailkapena organo eskudunak esleituko du, kasuan kasuko prozedura administratiboa izapide-tu ondoren”.

Zioak: Administrazioa berak emandako eran-tzunei atxiki behar zaie horiek legeak arautzen duen prozedura baten arabekoak direnean, kasu honetan bezala.

## 9. ZUZENKETA

### EH BILDU NAFARROA

#### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Artikulu bakarrari gehikuntza egiteko zuzenke-ta.

Sei bis. Turismoari buruzko otsailaren 14ko 7/2003 Foru Legeko 15. artikuluari puntu berri bat gehitzen zaio. Horren testua honela idatzita geldi-tuko litzateke:

“6. Jadanik establezimendu erregistraturen bat badaukaten 3.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan, turismo alorreko eskumena duen depar-tamentuak ez du zilegi izanen turismo-establezi-mendu gehiagorik ez eta postu-gehikuntzarik ere baimentzea, baldin eta jadanik badauden plaza baimenduak gehiago badira Udalari edo turismo-alorrean eskudun den Nafarroako Gobernuako Departamentuari eskabidea aurkezteko unean erroldatuta dauden biztanleen % 75 baino.

Herri horietan, udalek zilegi izanen dute turis-mo-establezimendu berriak eraendu eta baimen-tzeko arau propioak jaulkitzea, udal ordenantzen bitartez, baldin eta ez badaude kontraesanean foru lege honekin edo Nafarroako autonomia erki-degoko araudiarekin”.

Zioak: Muga hori ezartzen da ostatu turistikoen saturazioko zonak ekiditeko eta lurraldeari ekar-tzen dizkieten inpaktu negatiboak ekiditeko.

**10. ZUZENKETA****EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Artikulu bakarreko zortzigarren apartatua aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko litzateke:

“Zortzi. Turismoari buruzko otsailaren 14ko 7/2003 Foru Legeko 17. artikuluko 1. apartatua aldatzen da. Horren testua honela idatzita geldituko litzateke:

1. Ostatu establezimendu guztiek indarreko araudia bete behar dute, hirigintzari, eraikuntzari, instalazioei, irisgarritasunari, osasunari eta kontsumoari, segurtasunari, higienerari eta ingurumenaren babesari dagokienez. Establezimendu berri bat eratzen bada, erregistroan inskribatu aurretik establezimendu horren energia-auditoretza bat aurkeztu beharko da, UNE-EN16247ren arabera-koa”.

Zioak: Betebehar gisa ezartzen da establezimendu berriei energia-auditoretza bat egitea, energia-efizientziako irizpide berriak betetzen direla bermatzeko.

**11. ZUZENKETA****EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Artikulu bakarrari gehikuntza egiteko zuzenketa.

Hamar bis. Turismoari buruzko otsailaren 14ko 7/2003 Foru Legeari 19. bis artikulua berria gehitzen zaio. Horren testua honela idatzita geldituko litzateke:

“19. artikulua. Bis. Autokarabana-eremua.

Autokarabana-eremutzat jotzen dira autokarabanak gelditzeko eta aparkatzeko eremuak, erregelamenduz garatuko diren baldintzak betetzen dituztenak”.

Zioak: Autokarabana-eremuak ezartzen dira kanpalekuez bestelako ostatatze-gune gisa, erregelamendu bidez arautu beharrekoak.

**12. ZUZENKETA****NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Artikulu bakarreko hamabosgarren apartatuari gehikuntza egiteko zuzenketa.

Honako b) letra hau proposatzen da:

“b) Ostalaritzako establezimenduak, dituzten ezaugarri bereziengatik beren instalazioetan bertan denean egitekoa kontsumitze-jarduna”.

Zioak: Ez dauka zentzurik Foru Komunitateko taberna eta kafetegiak orain sailkapen horretatik at uzteak. Establezimendu horietako askok aurre-eramandako langintzak (pintxoak eta bestelako sukaldaritza- edo gastronomia-aniztasuneko pres-takinak apailatu eta eskaintzea) balioa erantsi diote Nafarroako eskaintza gastronomikoari. Are zentzu gutxiago du establezimendu horiek bazter-tzeak, noiz eta, agindu diren murrizte-neurri eta ixteen ondorioz, egoera negargarria pairatzen ari diren garai honetan.

**13. ZUZENKETA****EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Artikulu bakarrari gehikuntza egiteko zuzenketa.

Hamabost bis. Turismoari buruzko otsailaren 14ko 7/2003 Foru Legeko 25. artikuluko 2. apartatuari f) letra berri bat gehitzen zaio. Horren testua honela idatzita geldituko litzateke:

“f) Turismo-enpresen taldeak, xede dutenak taldera bildutako enpresen turismo-eskaintzen merkaturatze amankomuna”.

Zioak: Lege-testuan jasotzen dira turismo-enpresen taldeak, legearen lehengo testuan jada jasota zeudenak.

**14. ZUZENKETA****NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Artikulu bakarreko hamaseigarren apartatuari gehikuntza egiteko zuzenketa.

Honako b) letra hau proposatzen da:

“b) Turismo-enpresen taldeak, xede dutenak taldera bildutako enpresen turismo-eskaintzen merkaturatze amankomuna”.

Zioak: Sektoreko elkarteek beren elkartekideei eskaintzen dieten zerbitzu bat da, eragina duena Nafarroaren ezagutarazpen turistikoan, kalitateari eta segurtasun juridikoari loturiko baldintzetan.

**15. ZUZENKETA****EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Artikulu bakarreko hogeita bigarren apartatua aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko litzateke:

“27. quater artikulua. 2. Nafarroako Turismo Erregistroan inskribaturiko turismo-elkarte eta -partzuergoak, haien helburuen artean turismo-bitartekaritza agertzen denean (...)”.

Zioak: Apartatu berri bat jasotzen da, turismo-elkarte eta -partzuergoak barne hartzeko.

**16. ZUZENKETA****EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Artikulu bakarrari gehikuntza egiteko zuzenketa.

Hogeita bi bis. 29. artikuluari hiru apartatu berri eransten zaizkio. Eduki hau izanen dute:

“4. Interes turistikoko establezimendu edo jarduera izatearen kalifikazioa turismo arloan eskudun den zuzendaritza nagusiak jaulkitako aldeko txosten baten bidez emanen da, erregelamendu bidez zehaztuko diren baldintzekin eta irismenarekin.

5. Turismo alorrean eskudun den departamentuak turismo-intereseko establezimenduen eta jardueren Erregistro bat sortuko du.

6. Turismo alorrean eskudun den departamentuaren laguntzak eta diru-laguntzak eskuratzeko nahitaezko baldintza izanen da Erregistroan inskribatuta egotea”.

Zioak: Zigilu bitartezko aitortpena bertan behera uzten da, eta Erregistroa sortzen da, irizpideak bateratzeko.

**17. ZUZENKETA****NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Artikulu bakarreko hogeita hirugarren apartatuari gehikuntza egiteko zuzenketa.

29. bis artikulua berriko hirugarren apartatuari honako f) letra gehitzea proposatzen da:

“f) Ostalaritzako establezimenduak, kontsumoa beren lokaletan egitera bideraturiko zerbitzuak ematekoak izanik eta baldintzak betetik lagungarri

direnak erabiltzaileak Nafarroako Foru Komunitatean egoteari dagokionez”.

Zioak: Ostalaritzako lokalak eta, bereziki, intereseko baliabideetatik hurbil dauden herri edo tokietan kokatuta daudenak, funtsezkoak dira produktu turistikoa sortzeko. Beharrezkoa da, interes turistikoko establezimendu gisa kontuan hartuak izan daitezzen ez ezik, haien etengabeko hobekuntza eta eraldaketarako pizgarriak ematea, kalitatezko eskaintza bat tankeratze aldera.

**18. ZUZENKETA****NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA****ETA GEROA BAI****TALDE PARLAMENTARIOEK,****PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA****FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK****ETA IZQUIERDA-EZKERRA****TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK****AURKEZTUA**

Artikuluko hogeita seigarren apartatua ordeztzeko zuzenketa. Testua honela geldituko litzateke:

“34 bis artikulua. Jarduera, zerbitzu eta establezimendu turistikoen publizitateari eta merkaturatzeari buruzko betebeharrak.

Enpresa turistikoek, edo beste edozein motatakoek, jarduera, zerbitzu edo establezimendu turistikoak merkaturatzen edo haien publizitatea egiten dutenean paperezko euskarrian, webguneetan, kanaletan edo plataformetan edo beste edozein bidetan, bereziki betebeharrak hauek izanen dituzte, turismo-alorrean eskudun den departamentuak egin beharrekoa den errekerimendua egin ondoren:

a) Turismoaren arloan eskudun den departamentuari jakinaraztea beren informazio- edo merkaturatze-kanaletan txertatuta dauden jarduera, zerbitzu edo establezimendu turistikoak dituzten enpresen titulartasunari eta helbideari buruzko datuak, txertatze hori egin denean Nafarroako Turismo Erregistroko kasuan kasuko inskripzio kodea adierazi gabe, inskripzio hori nahitaezkoa izanda.

b) Beren informazio-, merkaturatze- eta/edo publizitate-kanaletan ematen den publizitate eta informazioa kentzea, Nafarroako Turismo Erregistroko inskripzio-kodea agertzen ez duten enpresei, zerbitzuei, establezimenduei edo jarduera turistikoari buruzkoa denean, inskripzio hori nahitaezkoa izanda”.

Zioak: Proiektuko testuan interpreta liteke, b) apartatuan eta ez bestetan aipatzen denez aurretiatzko errekerimendu bat, deskribaturiko jarduerak

egiten dituzten enpresak behartuta daudela, a) apartatuan ezarritakoagatik, Administrazioari jakinaraztera beren euskarrietan iragarritako edo merkaturatutako enpresa guztien datuak, haien iragarpenek ez dutenean adierazten Nafarroako Turismo Erregistroko inskripzioaren kodea.

Alabaina, arauaren xedea ez da euskarri horien titular diren pertsoneri eduki iragarrien ikuskapen orokorra egitearen zama ezartzea, ez eta aipatu pertsoneri eduki horiek azterraraztea ere.

Arauaren xedea bi betebeharrak berri ezartzea da, biak ala biak lotuta Administrazioak aurretiaz haien betetzea eskatzeari.

Horrela, turismo arloko Administrazioak, bere eginkizunen jardunean, iragarki bat detektatzen duenean zeinetan ez den agertzen Erregistroko inskripzio-koderik, publizitate- edo merkaturatze-enpresaren titular den pertsonarengana jo behar du, horrek eman diezazkion iragarle diren enpresen datuak.

Behin turismo-arloko agintariak egiaztatu duenean, eman zaion informazioaren arabera, koderik adierazi gabe iragarritako jarduera, enpresa, zerbitzu edo establezimenduak alabaina betebeharrak horren pean daudela, informazio-kanalaren titular den enpresari errekerimendua egin behar zaio eduki hori ken dezan, Turismoari buruzko Foru Legeak xedatzen duena urratzeagatik.

Ondorioz, okerreko interpretazioak eragotziko dituen zuzentasun tekniko baten mesedetan, 34. bis artikularen testua aldatzea proposatzen da, halako moldez non haren hasierako paragrafoa lekualdatuko baita “turismo-alorrean eskudun den departamentuak egin beharrekoa den errekerimendua egin ondoren” espresioa, zeina egun b) apartatuan agertzen baita.

## 19. ZUZENKETA

### EH BILDU NAFARROA

#### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Artikulu bakarrari gehikuntza egiteko zuzenketa.

Hogeita sei bis. Turismoari buruzko otsailaren 14ko 7/2003 Foru Legeko 42. artikuluko 4. apartatua aldatzen da eta j) eta k) letrak gehitzen zaizkio 5. apartatuari. Testua honela idatzita geldituko litzateke:

“4. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, Turismoko Mahai Sektorialarekin nahiz turismo-jardueraren bultzadan eta garapenean zerikusia duten gainerako eragileekin lankidetzan,

urteroko Jarduketa Plan bat prestatuko du, zeinean ezarriko baita hortxe bertan zehazturiko denbora-eperako jarraitu beharreko estrategia, bai eskualde-mailan beharrezkoak diren ekipamendu eta zerbitzuetako inbertsioei dagokienez bai sustapen eta komunikazioaren alorreko jarduketei dagokienez”.

“5. Planak honako hauek jasoko ditu gutxienez ere:

(...)

j) Turismo-guneak Kudeatzeko Unitateak prestatuturiko eskualde-planak.

k) Aurrekontua eta finantzaketa”.

Zioak: Turismoko Mahai Sektorialarekin ordeztzen da Nafarroako Turismo Kontseilua, eta barne hartzen dira Turismo-guneak Kudeatzeko Unitateak prestatuturiko eskualde-planak, proposaturiko aldaketekiko koherentziaz.

## 20. ZUZENKETA

### EH BILDU NAFARROA

#### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Artikulu bakarrari gehikuntza egiteko zuzenketa.

Hogeita sei bis. Turismoari buruzko otsailaren 14ko 7/2003 Foru Legearen 43. artikuluari 3. apartatu berria gehitzen zaio. Hona testua:

“3. Nafarroako turismo-bulegoen sarea eratuko da, zeinak mendekotasun organiko eta aurrekontuzkoa izanen duen turismo arloko departamentuarekiko”.

Zioak: Apartatua aldatzen da zerbitzu publiko hau indartzeko, funtsezkoa izaki turismo-jardunaren garapenerako.

## 21. ZUZENKETA

### NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI

#### TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

Artikulu bakarreko hogeita zortzigarren apartatuko ñ) letra ordeztuko zuzenketa. Honela idatzita geratuko da:

“ñ) Nafarroako Turismo Erregistroko inskripzioa nahitaezkoa denean, beren informazio edo



merkaturatze kanaletan inskripzio horren kodea adierazi gabe sartuta dauden jarduera, zerbitzu edo establezimendu turistikoak dituzten enpresen titulartasunari eta helbide sozialari buruz beha-

rrezkoak diren datuak ez jakinaraztea turismo arloan eskudun den departamentuari”.

Zioak: Hogeita seigarren apartatua aldatzeko zuzenketaren ondorioz.

---



